



bherria

bherria egonaldia txostena

euskadin herritarren aktibazio-prozesuak
sendotzeko topagunea eta lantokia

martxoak 12 - 13
bilbo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

BOLUNTARIOTZAREN
EUSKAL KONTSEILUA



CONSEJO VASCO
DEL VOLUNTARIADO

1. sarrera	3
1.1 Bherria	4
1.2 Bherria Egonaldia	5
1.3 Aurretiko prozesua. Plangintza eta diseinua	7
1.4 Bherria taldea	9
2. metodologia eta lanerako gailuak	10
3. parte-hartzeari buruzko datuak	13
3.1 Proiektu eta esperientzia inspiratzaileak	14
3.2 Komunikazioa	16
3.3 Ebaluazioa	19
4. emaitzak eta ikaskuntzak	21
4.1 Zaintzea	24
4.2 Uztea	28
4.3 Argitzea	30
4.4 Probatzea	33
4.5 Ardatzen eta arloen arteko topaketa	36
5. eranskinak	39
5.1 Blogeko artikuluak	40
5.2 Ebaluazio-datuak	60

1

sarrera



1.1 Bherria

Bestelako lankidetza publiko-sozialak bilatu eta sustatzeko helburuz Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin batera sortutako ekimena da Bherria. Lankidetza-mota horien ezaugarriak irekitasuna, parte-hartzea eta partekatutako erantzukizuna dira.

Bherria izena 'Berria' eta 'Herria' hitzak uztartuz sortu da. Izendapen horren bitartez adierazten da herritarren aktibazioari dagokionez udal-jarduera indartu dezaketen ekintzen bilaketa, baita ere lankidetza-guneen eraikuntza eta boluntariotzaren esperientzia eta baloreen sustapena.

Azken hiru urteetan aurrera egin dugu lankidetza publiko-sozialerako molde berriei dagokienez, 2017an gauzatutako Bherriaren Agora guneen bidez; era berean, gune publikoen kudeaketa komunitarioak dakarren erronkari heldu diogu, 2018 eta 2019 artean garatutako BherriLab herritarren laborategiaren bitartez.

2020ko martxoaren 12an eta 13an, Euskadin herritarren aktibazio-prozesuak sendotzeko Bherria Egonaldia burutu zen Bilbon.



1.2 Bherria Egonaldia

Bherria Egonaldia elkar topatu eta elkarrekin lan egiteko gunea da, udal-administrazioek gidatzen dituzten edo parte hartzen duten proiektuak sakontzeko eta hobetzeko sortua. Proiektu horien helburua pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da, herritarren ekimenekin batera lan eginez, eta parte-hartze sozialaren eta boluntariotzaren baloreei lotuta.

Lan saioak ZWAPeko La Terminal aretoan egin ziren, 'Estampaciones y Caldería'ren pabiloi zaharrean; orain balio anitzeko espazioa da, leku esanguratsua, eta gu bertara hurbildu gara Zorrotzaurre auzoa suspertzeko inplikatzaren diren pertsonen kezkaren bidez sortu baita.



Bherria Egonaldia, bere udalerrian proiektu bat abian duten Administrazio Publikoko teknikariei zuzendua, hiru lan-ardatzen inguruan egituratzen da:

- **Lankidetza erakundeen barruan.** Udal-arloen arteko koordinazioa, herritarren partehartze prozesuak eta boluntariotzaren sustapena indartzeko.
- **Lankidetza erakunde sozialen eta herritarren ekimenen artean,** udalei behar duten laguntza emango dieten estrategia eta baliabideei arreta emanez, dinamika horiek bultzatze aldera.
- **Lankidetza Administrazio Publikoaren eta herritarren artean,** gizarteak dituen erronka berriei erantzun eraginkorragoak emateko.



1.3 Aurretiko prozesua. Plangintza eta diseinua

Topaketaren aurretiko lan-prozesuari buruzko aipamen berezia egin nahi genuke. Bherria Egonaldia Bherria taldearen eta Eusko Jaurlaritzaren eta Boluntariotzako Euskal Kontseiluaren arteko lan koordinatuan oinarritzen da, Egonaldiaren fokua, helburuak eta xede dituen pertsonak eta/edo agenteak zehazteko.

Aurretiko lan horren zati gisa eta Egonaldiaren diseinua ez ezik, helburuak, herritar hartzaileak, edukiak eta metodologia ere egiaztatzeko helburuarekin, gonbita luzatu zaie hiru pertsonari, toki-administrazioari udal teknikariei, hiru alditan bilduko den Talde Motoreko partaide izateko: lehen bitan topaketa egin aurretik prestaketa-lanak egiteko bilduko dira eta hirugarrenengan esperientzia baloratzeko.

Talde horretan parte hartuko dute, halaber, Boluntariotzako Euskal Kontseiluko bi pertsonak eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaien Saileko zuzendaritzako pertsona batek, Bherriaren aurreko edizioetan adierazitako kezkak eta premiak gogoratzen eta jasotzen laguntzeko. Horrez gain, kideek esku hartuko dute Egonaldian parte hartzeko interesa izan dezaketen toki-administrazioari pertsonak aintzatesten.





Talde Motorean parte hartu duten pertsonak bene-benetan eskerrak eman nahi dizkiegu erakutsi duten eskuzabaltasunarengatik, bai ekarpenak egiterakoan, bai prozesurako garrantzitsuak diren agenteekin konektatzerakoan. Hona hemen aipatu pertsonak:

- **Eider Txarterina**
Etxebarri (Etxebarriko Udaleko Gazteria Saila)
- **Eva Salaberria**
Donostia (Donosti Lagunkoia)
- **Claudia Emmanuel**
Bilbo (Bilboko Udaleko Inmigrazio Saila)

1.4 Bherria taldea

Bherria programa Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Saileko Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak bultzatzen du, Boluntariotzako Euskal Kontseiluarekin batera.

Bherriako koordinazio-taldeak diseinatu eta kontzeptualizatu da: Asier Gallastegi, ColaBoraBora (Txelu Balboa eta Javier Modino) eta Komunikatik (Asier Amezaga, Ainara Bruña eta Arantxa Sainz de Murieta).

- Irudia eta diseinu grafikoa: Vudumedia.
- Dokumentazioa eta ikus-entzunezko edizioa: Raúl Fernández de Pinedo.
- Erlatoria grafikoa: Josune Urrutia Asua.
- Argazki-dokumentazioa: Olga Ruíz.
- Bherria Egonaldia 2020ko martxoaren 12an eta 13an egin zen, Terminalean (ZAWP). Zorrotzaurre auzoa, Bilbo.

<https://bherria.eus/eu/egonaldia>

Dossier hau CC-BY-SA 4.0 lizentziapean argitaratuta dago —egungo eta ondorengo bertsioak—; horren bitartez, banaketa ziurtatzeaz gain, hortik eratorritako obren erabilera askea eta sorkuntza ahalbidetzen da, betiere, iturria aipatzen eta lizentzia berarekin partekatzen bada.



2



**metodologia
eta lanerako
gailuak**

Topaketa honetarako esperientzia hoberena lortzea xede nagusia izanik, hainbat jarduera programatu dugu eta horiei modu kolektiboan helduko diegu —osoko bilku-ran edo talde txikietan—, proiektuen analisia eta hobekuntza prozesua errazteko. Horrez gain, amaierako une bat antolatuko dugu ere ba-koitzak ondorioak eta bere ikaskuntza ateratzeko.

Ariketa hauen ordenak hobekuntzarako aldaketa eta eraldaketa logika bati jarraitzen dio: dagoeneko dakiguna (enuntziatua); ezagutu behar duguna (galde-ra-erantzuna); eta ikasi-ko duguna (ondorioak eta hurrengo urratsak).

Halaber, bi gailu mota diseinatu ditugu egindako aurrera pausuak zabaltzeko eta monitorizatzeko:

- **Lan koadernoak.** Koaderno hau bitakora pertsonal bat da, bertan oharra, ekarpenak, gogoetak edo Egonaldia honetan gertatzen denari eta erabilgarri zaizunari buruzko ideiak biltzeko.

[Deskargatu Lan Koadernoak](#)

(PDF, 339KB - 56 orrialde, A5 tamainan). [Print friendly' bertsioa](#)

- **Proiektuaren panela.** Formatu handiko proiektuaren fitxa bat da. Egonaldian garatzeko jarduera bakoitzerako atalak hartzen ditu barne eta ondorioak eta ikaskuntzak iraultzeko gune gisa diseinatuta dago. Bherria Egonalditik kanpoko pertsonari prozesua azaltzeko oso erabilgarria da.

[Deskargatu Proiektuaren Panela](#)

(PDF, 100KB - 100x160cm-ko plotter 1).



Bi gailu nagusi horiez gain, egoitzak beste gailu batzuk ere baditu:

- **Proiektu fitxa.** Proiektua modu sintetikoan azaltzeko fitxa erraz bat. Parte hartzen duten proiektuek aldeaz aurretik jasotzen dute beren bulegoetan fitxa, eta beteta ekartzen dute topaketara.

[Deskargatu Proiektu Fitxa.](#) (PDF, 112KB - 2 orrialde, A3 tamainan).

- **Autodiagnostikoa.** 10 galderako galdetegi labur bat, proiektu bakoitza ebaluatzeko. Galderek hiru lan-ardatzekin lotutako hainbat alderdiri egiten diete erreferentzia.

[Deskargatu Autodiagnostikoa](#) (PDF, 70KB - orrialde 1, A3 tamainan).



3



parte-hartzeari buruzko datuak

3.1 Proiektu eta esperientzia inspiratzaileak

Bherria Egonaldian hogeita hamar bat pertsonak parte hartu dute honako hauekin zerikusia duten 16 proiektu lantzen: hezkuntza, berdintasuna, kulturartekotasuna, kirola eta hirigintza, adinekoak, gazteria, kultura, espazio publikoaren erabilera edo boluntariotza, besteak beste. Jarraian, zerrenda bat agertuko da proiektu bakoitzaren informazioarekin nahiz bertan lanean aritu diren pertsonekin.

PROBINTZIA	UDALERRIA	PROIEKTUA	GAIA	PERTSONAK
Araba	Gasteiz	Pou-Plaza-Calle Zona Campillo	Espazio publikoa-ren erabilera	Iñaki Luzuriaga
Bartzelona	Manlleu	PEC (Projecte Educatiu de Ciutat)	Hezkuntza	Betlem Parés
				Nuria Font
				Rafa Cuenca
Bizkaia	Barakaldo	Barakaldo Lagunkoia	Nagusiak	Arantza García
				Patricia del Hierro
	Basauri	Marienea	Emakumea eta berdintasuna	Anabel Sanz del Pozo
				Isabel Cadaval
	Bilbo	Immigrazioaren tokiko kontseilua	Kulturartekotasuna	Claudia Emmanuel
	Bizkaia	Herriz-herri- bolunta	Boluntariotza	Arturo Carracedo
				Maria Gutierrez
	Getxo	Thinking Fadura	Kirola eta hirigintza	Asier Arévalo
Gipuzkoa		Zaharetxe	Nagusiak	Patricia Alkorta
	Orozko	Txopera Bizi	Espazio publikoa-ren erabilera	Zalao Rotaetxe
	Gipuzkoa	Gazteguner Plus	Gazteria	Urko Imaz
		Gaztematika eta Komunitatea	Gazteria	Maite Usabiaga
	Oñati	Emakumeen ahalduztze soziopolitikorako lankidetz	Emakumea eta berdintasuna	Jone Arriolabengoa
				Onintza Andrés
Sevilla	Sevilla	Bibliobús Anantapur (Mobile Library)	Berrikuntza soziala, enplegua eta kultura	Silvia Puertas

Horrez gain, esperientzia inspiratzaileak ezagutu ditugu, eta badirudi, haien izaera, tamaina, garapena eta inpaktua medio, beste distira bat dutela. Proiektu horiek geure buruari begiratzeko ispilu moduan erabil daitezke, parte hartzen duten proiektu guztientzat hausnarketa-elementuak eskaintzen baitituzte. Egia esan, lankidetzaren publiko-sozialeko proiektu horiek bultzatzen dituzten edo bultzatu dituzten pertsonekin egoteko aukera izan genuen:

Carol Romero

Decidim

Garatutako partaidetzarako plataforma digitala, edozein motatako prozesu demokratikoa artikulatu ahal izateko eta herritar zein erakunde publikok erraz erabiltzeko tresna.

Raúl Oliván eta Kani Cubo

CVOL

Aragoiko Gobernuak Gobernu Irekiaren eta Gizarte Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiak garatua, CVOL zeharkako eskumenen bidez boluntariotzaren eragina sustatu, aitortu, egiaztatu eta neurtzen duen plataforma digitala da.

Axel Moreno

Iruñategi

Iruñeko Udaleko Herritarren Partaidetza eta Jabekuntza Sozialeko Arloak bultzatutako proiektua, hiriko gobernantza-sareak aztertu, ikusarazi eta indartzeko.

3.2 Komunikazioa

Komunikazioa balio publikoa eraikitzeko funtsezko pieza moduan erabiltzea Bherriaren ezaugarrietako bat da, eta, jakina, horrela izan da baita ere hirugarren edizio honetan. Komunikazioaren bidez lortu nahi duguna da lankidetzaren publiko-sozialeko modu irekiagoak, parte-hartzaileagoak eta erantzunkidea-
goak sustatzea, agente ezberdinekin konektatzea eta espazio presentzialak zein digitalak proposatzea, elkar aurkitzeko, ikasteko, partekatzeke eta erronka konplexuen aurrean irtenbideak bilatzeko.

*Komunikazio-
prozesuen bidez
konfiantza eta lotura
lortzea da lankidetzaren
proposamen
batekin bat egiteko
aurretiazko urratsa*

Sareko elkarriketei esker, antolamendu sozialerako eta ezagutzaren trukerako modu berriak sortzen dira. Komunikazio-prozesuen bitartez konfiantza eta lotura lortzea da lankidetzaren proposamen batekin bat egiten duten pertsona ezberdinak harremanetan jarri aurretik egin beharrekoa. Gure ustez, komunikazioa mobilizazio sozialerako erreminta indartsua ez ezik, aukera bat ere bada zer gertatzen ari den entzuteko, gure inguruan zer sortzen den jakiteko eta zeri arreta eskaini behar diogun erabakitzeko. Halaber, beste lekuetan jada jardunean diren proiektuak ikusi eta horiei balioa ematen diegu, erronkak ebazteko modu sortzaileak jorratzeagatik eta horiek abian jartzen diren

beste ekimen batzuetarako inspiratzaileak izan daitezkeelako.

Bherria Egonaldia Euskadin herritarrek aktibatzekeo prozesuak indartzeko espazio gisa diseinatu da. Proiektu honetarako diseinaturiko komunikazio-estrategiaren asmoa da proposamena hobeto ulertzen laguntzea, bai informazioa emateko ikuspegitik, bai tokiko administrazioetik pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko proiektu parte-hartzaileak edo gidatuak indartzeko aukera ematen duten ekimenak, esperientziak eta baliabideak ikusaraziaz, herritarren ekimenekin eta parte-hartze sozialaren eta boluntarioraren balioekin lotutako ekimenekin lankidetzan.

Illo horretan, web orrialdeko **blogaren** bitartez, ekimen batzuk ezagutzera eman nahi izan ditugu, gure ustez nabarmenak izateagatik eta esanguratsuak izan daitezkeelako hobetzeko edo abian edo egitear dagoena indartzeko helburuarekin berriro ere gogoeta egin nahi duten proiektuetarako.

Ekimen horiek ezagutzera emateko, elkarrizketak egin zaizkie proiektu horien buru diren edo bultzatzen dituzten pertsoneri, tartean, honako hauek: Carolina Romero, Localret Kontsortzioko Ezagutzaren eta Teknologiaren Saileko teknikaria eta Decidim-en bultzatzailea, hots, herritarrek parte hartzeko plataforma-rena; Raúl Oliván, Aragoiko Gobernuak Gobernu Irekiaren eta Berrikuntza Sozialaren zuzendari nagusia, CVOL abian jarri duena, boluntariotzaren inpaktua sustatzen, aitortzen, ziurtatzen eta neurtzen duen plataforma digitala; eta Axel Moreno, Iruñategi proiektua bultzatu zuena Iruñeko Udalean Herritarren Parte-hartzeko zuzendari zen etapan. **Elkarrizketa horiek orain arte 6.398 bisita izan dituzte** sei aste baino gutxiagoko denboran eta kanal propioetan jarduerarik gabeko aldi baten ondoren.

Ikus-entzunezko komunikazioa funtsezko formatua da komunikazio-prozesuetan. Elkarrizketa, Bherriaren hirugarren edizioaren irteera-artikulua, Egonaldiari buruzko kronika eta topaketa horretako emaitzen eta ikaskuntzen inguruko artikulua gain (ikus txosten honetako 2. Eranskina), ikus-entzunezko dokumentazioa jaso dugu proiektuan zehar. Modu horretan, batetik, testuzko elkarrizketa bakoitzari bultzatzaileek grabatutako azalpen-bideoa gehitu diogu; eta, bestetik, Egonaldian zehar esperientzia horren inguruan partekaturiko kontakizuna eraikitzen lagundu ziguten pertsona ezberdinekin hitz egin ahal izan genuen. Ekoizpen horiei proiektuaren aurkezpeneko lau bideo erantsi behar zaizkie, talde bideratzaileak egindakoak, eta bi bideo-teaser, euskaraz eta gaztele-raz, Egonaldia sustatzeko egindakoak.

*Sei aste hauetan
argitaratutako 10
bideoek 62.000
bistaratze baino
gehiago izan dituzte*

Guztira, **hamar bideo** egin eta argitaratu ditugu, eta **dagoeneko 62.000 aldiz ikusi dira** Irekiaren YouTube kanalean eta Bherriaren Twitter eta Facebook kontuetan. Ikuspen horietan ez da 10. bideoa zenbatu; hots, Egonaldiaren bideoa, txosten honekin batera argitaratuko baita. Edonola ere, ziur gaude erreproduktio ugari izango dituela.

Sare sozialetan, Twitter eta Facebook-ean, #Bherria hashtaga duten argitalpenekin **1.166 erabiltzailek parte hartu dute elkarrizketetan**; argitaratutako edukiek **738.593 erabiltzaile eskuratu dituzte**, alegia, Bherria Egonaldiarekin loturiko edukiak ikus ahal izan dituzten pertsonak proiektua garatu den sei astetan zehar. Datu horiek erakusten dute pertsona askori interesatzen zaiola Bherria proiektua, nahiz eta topaketa presentzialetan ez parte hartu.



Datu horiek ondorengo irakurketa hauek egitera eraman gaituzte:

- Komunikazio-estrategiak, zentzurik zabalenean, ezagutzera ematen eta parte-hartze altua lortzen lagundu digute geruza digitalean ezarritako elkarrizketan.
- Bideoak erabiltzaileen informazio-kontsumorako gustuetara gehien egokitzen diren formatuetariko bat izaten jarraitzen du. Elkarrizketek, edukia nahiz sortzen dituzten pertsonen aniztasunarengatik, benetako interesa sortzen dute komunitatean.
- Kanpoko erreferentziek laguntza handia eskaintzen dute aurretik egiten denetik ulertzeko eta ikasteko. Ez gara zerotik abiatu.
- Bherria proiektua oso ondo onartzen dute proposamenen hartzaile diren pertsona eta eragileek; gertuko inguruneetatik haratago iristea lortu dugu.
- Komunikazioari esker, Egonaldiaren proposamenarekin bat datorren kontaktuzuna eraiki ahal izan dugu.

3.3 Ebaluazioa

Bherria Egonaldiaren ebaluazioa aurrez aurre egiten da, lan saioak bukatutzat ematen den unean bertan. 18 inkesta jaso dira, eta osorik kontsulta daitezke txosten honen 3. eranskinean.

1etik 6ra bitarteko eskala batean, Bherria Egonaldiaren batez besteko ebaluazioa 5,36 puntukoa da, eta horrek adierazten du asebetetze-maila handia dagoela topgune horren garapenarekin eta aprobetxamenduarekin. Jarraian, topaketa honen helburuei, metodologiari eta erraztasunari buruzko balorazioak nabarmenduko ditugu:



Bherria Egonaldiaren ebaluazioa

1etik 6rako batez besteko ebaluazioa	5,36
--------------------------------------	-------------

Helburuak

Zure zalantzak eta kezkak partekatzeko konfiantzazko espazio bat sortu dela uste al duzu? (0 eta 6 bitartean).	5,61
Antzeko zalantzak eta esperientziak dituzten pertsonak ezagutu dituzu? (0 eta 6 bitartean).	5,17
Zure ulermena zabaltzeko aukera izan duzu beste ikuspuntu osagarriekin? (0 eta 6 bitartean).	5,33
Zure proiekturako Ikasketa praktikoren bat eramango duzu? (0 eta 6 bitartean).	5,17
Gisa honetako proiektuak ahalbidetu eta ezagutarazi aldera, ekimen hau lagungarria izan daitekeen uste duzu? (0 eta 6 bitartean).	5,72

Metodologia eta bideraketa

Zer iritzi duzu erabilitako metodologiaren gainean? (0 eta 6 bitartean).	5,89
Eta bideraketa dagokionean? (0 eta 6 bitartean).	5,50

4

**emaitzak
eta ikaskuntzak**

Ondoren, modu irekian partekatu nahi ditugu Bherria Egonaldian parte hartu zutenek –teknikariek eta udal arduradun politikoek- jasotako ikaskuntzak, herriarren aktibatze-proiektuak indartzeko lan bateratu eta trinkoa egin ostean.

Ekarpen hauek lau multzo nagusitan zehazten dira, zaindu, utzi, argitu eta probatu beharreko alderdiak jasotzen dituztenak. Era berean, ikasketa bakoitza Egonaldiaren lan-ardatz eratzaile bati edo gehiagori dagokio:




- **Erakundeen barneko lankidetza.**
(Erakunde barneko ardatza).
- **Gizarte-antolakundearen eta herri-ekimenen arteko lankidetza.**
(Herriarren ardatza).
- **Administrazio Publikoaren eta herriarren arteko lankidetza.**
(Ardatz publiko-soziala).

Ardatz horiek jasotako ekarpen bakoitzean erreferentziatuta ikusiko ditugu, eta, ondoren, koadro gurutzatu baten bidez, lau eremuen eta Hiru ardatzen arteko bidegurutzearen argazkia erakutsiko dugu.

Aldaketa eta berrikuntza kudeatzeko Claes F Janssenek sortutako "Aldaketaren lau gelak" eredutik abiatzen da metodologia. Berrikuntza-prozesuak hasteko bi arketipo purutan jartzen da arreta: batetik, aldatzeko joera duten pertsonengan, eta bestetik, berrikuntzaren aurrean gehien erreakzionatu eta defendatzen direnengan. Pertsona horiek nortzuk diren atzemateak aukera ematen digu haiek deskribatzeko, galderak eginez joerei, rol-motei, lantzen ari diren proiektuei eta abarri buruz. Pertsona horietako bakoitzak aldaketaren kudeaketarekiko dituen alderdi positiboak eta negatiboak aurkitzea da ariketa-rekin jarraitzeko egin beharreko hurrengo urratsa.

Galdera horien erantzunak lau gelaren inguruan antolatzen dira, eta gela horiek laguntzen dute aldaketarako eta berrikuntzarako faseak deskribatzen, espiral-eredua erabiliz, hau da, berrikuntza txikiak abiarazten ditugunean, errutina bihurtzen dira, eta orduan berriz hasten da zikloa.



4.1 Zaintzea

Lehenengo gela berritasunaren aurreko defentsa-jarreraren dimentsio positiboenari dagokio. Ekintzaren muina zaintza merezi duenari arreta ematea da, hau da, irautea interesatzen zaigun eta azkarregi joango bagina gal litekeenari.

Lankidetza-prozesuetan zaindu beharreko sei alderdi jaso ditugu. Horietako bakoitzean lan-ardatz bati edo gehiagori dagozkion hainbat gako daude:

1. Prozesuez eta proiektuez **aldendu eta hausnartzeko tokiak eta denbora**:

- a. Ekintzei buruzko hausnarketa zaintzea proiektuen fase guztietan. Fokua zabaltzea eta gehiago jakitea inpaktuez eta prozesuak errazten dituzten taldeen dinamikaz. (Hiru ardatza).
- b. Dagoeneko gertatzen ari dena ikertzea, esploratzea eta bistaratzea, haren balioa azpimarratzeko, eta eskura daitezkeen prozesuen aldeko baliabideen multzora gehitzeko. Adibide bat **Iruñategi** proiektua da, Iruñeko baliabideak zerrendatu eta mapan kokatzeko ekimena. (Herri-tarren ardatza).
- c. Behaketa-guneak eratzea, behatoki iraunkorrak edo aldi baterakoak izan daitezen, eta zer gertatzen den hobeto ezagutzeko aukera eman dezaten. (Hiru ardatza).
- d. Kontuan izan beharra dago gune horiek eremu presentzialaren eta eremu digitalaren arteko konbinazioan egon behar dutela. (Hiru ardatza).

2. **Prozesuak erraztea**. Gertatzen denaren zerbitzura jartzen gara eta egoera bakoitzerako behar diren gaitasunak eransten ditugu.

- a. Proiektuan zehar haren lehenbiziko arrazoia, helburuak eta ekintza hori eragin zuen motorra gogoratzea eta berreskuratzea da gakoetako bat. Hasierako balore eta irudipenekin leiala izatea da xedea; horrek komunikazio hobea ekarriko du, barrurantz nahiz kanporantz. (Hiru ardatza).

- b. Prozesuan zehar, eta hura benetan esanguratsua bada, oso litekeena da erronkak eta aurrera nola egin ez dakigun momentuak iristea. Garrantzitsua da egoera hori apaltasunez onartzea, eta bestelako iritziak, kanpokoan laguntza eta prestakuntza bilatzea, baliabide gehiago ekartzeko. (Erakunde barneko ardatza).
- c. Egiten jakite bat badago, teknikoa, prozesuak erraztearekin lotura duena; arlo horretako profesionalak behar ditugu; gainera, lanabes eta oinarri metodologiko horiek gure antolakundeen kulturaren parte izatea behar dugu. (Hiru ardatza).
- d. Informazioa oso garrantzitsua da lotura eta konfiantza sendotzeko. Entzuteak, elkarrekin hitz egiteak, aurrera joateak eta lana hainbat formatutan dokumentatzeak (partekatu ahal izateko) motibazioa eta parte-hartzea indartzen dituzte. Oihartzuna du **Decidim** proiektuak, eta trazabilitaterako, gardentasunerako eta komunikaziorako duen ahalmenak. (Hiru ardatza).

3. Zaintza zaintzea.

Mota honetako proiektuen muinean dauden jardueretako bat zaintza da.

- a. Zehar-proiektuetan murgilduta dabiltzan taldeak eta kideak zaintzea.
- b. Puntu honetan, **Manlleuko Udaleko Pertsonentzako Zerbitzuen eta Ekonomia Sustapenaren Arloko** profesionalen parte-hartzea zaindu eta erraztea aipatzen da. (Erakunde barneko ardatza).
- c. Lerrokatzea, partekatutako helburuak eta finkatutako asmoa zaintzea. Tartean dauden eragileak elkarren oso desberdinak dira eta hori aberasgarria da proiektuetarako; batzen gaituenaren bidez elkar ezagutzeko eta planifikazioa gune formal eta ez-formalen bidez indartzeko beharra dugu. (Hiru ardatza).
- d. Pertsonak zaintzea. Beharrak zeintzuk diren entzutea, ulerberak izatea "erresistente" etiketa arin samar ipintzen diegun jarrerekin, beste urrats bat egiten laguntzeko. (Hiru ardatza).
- e. Lanaren lehen lerroan dauden kideak zaintzea. Zer premia dagoen zuzenean entzuten dutenak, harremanak dituztenak eta sarea ezagutzen dutenak. **Gaztematika**. Gipuzkoako gazteria sustatzeko sarea, jarri dugu adibide gisa. (Erakunde barneko ardatza).
- f. Proiektuaz interesa duten eta izan duten pertsonak zaintzea. (Hiru ardatza).

4. Sareak eta konfiantzazko harremanak. Konfiantzazko harremanak eraikitzen dituzten jarrerak eta errutinak sendotzea.

- a. Komunikazio politiko-teknikoari arreta; harreman berezi hori zikloek ezaugarritzen dute, baita jarraitutasunaren eta desberdintzearen arteko orekak ere. (Erakunde barneko ardatza).
- b. Udalerrien eta udal-sailen arteko koordinazio-guneetako lana. Asmo onak adieraztetik harago joatea, partekatutako proiektuak eraikitzea, partekatutako helburuen alde lan egiteko. (Erakunde barneko ardatza).
- c. Lana elikatzea, harremana zaintzen eta tartean diren pertsona eta antolakunde guztien arteko komunikazioa hobetzen laguntzen duten ohitura eta errutinen bidez. (Hiru ardatza).
- d. Harremana eta banakoen eta kolektiboen hurbiltasuna sendotzea Administrazio Publikoko pertsonen eta herritarren artean. Adi entzutea, ulertu dugula segurtatzea, erantzunak eraikitzeko aurrera egitea, egindakoa partekatzea eta azaltzea. (Ardatz publiko-soziala).



5. Ekintza boluntario eta solidarioen inpaktua eta balioa aitortzea. Balio handiagoa ematea lan ez-formalari.

- a. Pertsonak eta antolakundeek egindakoa entzutea, aitortzea eta sendotzea. (Herritarren ardatza).
- b. Boluntariotzaren eta militantziaren bidez pertsonak garatzen dituzten konpetentziei arreta eskaintzea eta benetako balioa ematea. Interesgarria da Aragoiko Gobernuaren **CVOL** egitasmoak egiten duen proposamenari arretaz begiratzea. (Ardatz publiko-soziala).

6. Sormena, erratzeko beldurrik gabe.

- a. Eraikitzen ari diren proiektuekin lan egiten dugu, neurri batean parekorik ez dutenak, parte-hartzaileengatik eta testuinguruagatik. Dakizkigun gauzak eta egiturak erabili behar ditugu berme modura, forma hartzen duen horren aurrean irekita egoteko. (Hiru ardatza).
- b. Laborategiaren kontzeptua gero eta sarriago agertzen da; garrantzitsua da testuinguruak eratzea esperimentatzea ahalbidetzeko, egiten dugunaz ikastea, gatazkei eustea, dokumentatzea, sistematizatzea eta partekatzea, ikaskuntzak transferitzeko. (Hiru ardatza).



4.2 Uztea

Bigarren logela "nahi ez izate" negatibo bati dagokio; lotuta dago ordura arteko errutina, ezaguna den hori, kosta ahala kosta babestearekin. Baliteke inoiz garrantzitsua eta beharrezkoa izan den zerbaitek bere funtzioa beteta izatea dagoeneko. Kontrola dugu, baina tentsioarekin; hura askatuz joan behar dugu, gauza berriei lekua, denbora eta energia emateko.

Lankidetza-prozesuetan alde batera utzi beharreko lau alderdi jaso ditugu. Horietako bakoitzean lan-ardatz bati edo gehiagori dagozkion hainbat gako daude:

1. Zenbait egitura, pentsamolde edo eredu mental eraldatzeko **beldurra izateari uztea**.
 - a. Planifikatzen dugunean beldurrak desagertu egiten dira. Beldurra agertzen da zerbait desberdin egingo badugu, edo honelakorik egingo badugu: (Hiru ardatza)
 - I. Ezagun duguna uztea. Bertigoaren antzekoa da; ona da horri aditzea, halako zalantzak aintzat hartzeak benetako aukera ematen baitu gauzak bestela egiteko. Gainera, norbera ere aldatzen da hein batean, eta gaitasun berriak bereganatzen ditu.
 - II. Beste ekintza batzuk bultzatzea. Gauzak beste era batera eginda erratzeko beldurra; badirudi errazago onartzen dela gauzak betiko eran egin eta helburuak ez lortzea, beste modu batean egin eta erratzeko arriskua hartzea baino. Fantasia hori galga da ekintza berriak abiarazteko.
 - b. Beldurra eta errezeloa diegu gure antolakundeetatik irteteari, "kaleko" lana egiteari. Badirudi hala eginez babestuta egoteari utziko diogula, eta beharbada liskarrak eta gatazkak izango ditugula, beharrian, historia eta toki desberdinak dituzten pertsona eta antolakundeekin topo egingo dugun heinean. (Ardatz publiko-soziala).
 - c. Sustatzaile estatikoaren soslai probatzeko eta hausteko beldurra. Kostatzen zaigu beste pertsona eta antolakunde batzuekin proiektuak gidatzea; gidatzen edo diruz laguntzen ez dugunean, elkarrekin topo egin behar dugu, eta ados jarri.(Ardatz publiko-soziala).

- d. Sentsazioa dago batzuetan herritarren ekimena geldiarazteko lana egiten dela. Antza denez, zaila da herritarrek ekiteko duten indarraz eta energiaz jabetzea; joera dugu pentsatzeko herritarrek kritika egiteko erabiliko dituztela topaguneak, eta ezin izango dugula elkarrekin ezer eraiki. (Ardatz publiko-soziala)..

2. Lanpetuta gauzkaten gauzak uztea eta garrantzia dutenei arreta ematea.

Zenbait zeregin eta errutina ezagun alde batera uztea modu bakarra da gauza berriak egiteko eta bestelako ekintza batzuetarako tarte sortzeko.

- a. Astiroago joatea eta norabidea berreskuratzea. Geure buruei galde diezaiekegu; nola erreplika dezakegu, bikoiztu gabe? Bikoiztuz gero energia galtzen dugu. (Erakunde barneko ardatza).
- b. Garapen berriak egiteari uztea eta abian dagoena indartzea. (Hiru ardatza).
- c. Gauzak behin eta berriz birplanteatzeari eta nola-hala lan egiteari uztea, eta hobeto programatzea. (Erakunde barneko ardatza).

3. Mugen aurka borrokatzeari uztea eta geure energia alda dezakegun horretara bideratzea.

- a. Energia asko galtzen dugu pertsona batzuen jarrerak, balioak edo mundu-ikuskerak aldatu nahian. Arreta nora, energia hara; hortaz, aldatu nahi ez duenari besterik ez diogu erreparatzen. Puntu horri dagokionez, Andaluziako Liburutegien proiektuak eman zigun irakaspena: "Ez ditugu boluntario liburuzainak bilatu behar, enpleguan eta berdintasunean eskarmen-tua dutenak baizik". (Erakunde barneko ardatza).
- b. Era berean, batzuetan konbentzitutako pertsonen ematen diegu arreta gehien; garrantzitsua da horiek zaintzea eta hain konbentzituta ez dauden beste batzuegana hurbiltzen hastea. (Ardatz publiko-soziala).
- c. Mugen aurka borrokatzen gara eta arreta handiegia eskaintzen diegu arazoei. Mugak ezagutu eta haiei buruz hitz egin beharra dago, eta argi utzi gure esparrua zein den. Era horretan, aldatu ezin duguna zer den jakinik, alda dezakegun guztiari begiratzen has gaitezke. (Erakunde barneko ardatza).
- d. Batzuetan irekitzeko zailak diren ateak jotzen ditugu, beste batzuk erdi zabalik eta elkarlanerako prest izanda. Begirada zabalagoa behar dugu. (Erakunde barneko ardatza).

4. Hizkera teknokrata erabiltzeari uztea eta zubiak eraikitzea, besteengana hurbiltzeko aukera izateko. Ezin dugu ahaztu hizkera berdina erabiliz gero, pertsonak ulertzen zaiela sentitzen dutela. (Hiru ardatza).

4.3 Argitzea

Hirugarren gela gauzak bestela egin nahi izateari baina egiten ez jakiteari dagokio. Nahasmendu-gunea da; badakigu zer ez dugun egingo, baina oraindik ez dakigu zer sortuko den. Ezagutzen duguna egiteari uzten diogunean, gauzak argitu beharra dugun fasean sartzen gara; desoreka dago, tentsioa.

1. Geruza digitalaren erabilera eta prozesu presentzialekiko hibridatzea

aztertzen jarraitu nahi dugu. Aurrez aurreko topaketetan gertatzen dena indartuko duen erabilera, eta helburuekin bat egingo duena: entzutea, solas egitea, prozesuei balioa aitortzeko zabalkundea egitea, pertsonei eta antolakundeei ikusgaitasuna ematea, hausnartzea eta erreplikagarritasuna eta konbentzitzea lortzea.

- a. Geruza digitala parte-hartzeari aplikatzeko eta komunikazio ona egiteko gakoak ezagutu nahi ditugu. Egoitzako proiektu ezagun askok inspirazio gisa balio dute, esaterako, **Thinking Fadura**, Getxoko Fadurako udal kirol parkea birdiseinatzeko prozesu parte-hartzaile bat, edo Bherria programa bera. (Ardatz publiko-soziala).
- b. Aurrez aurreko prozesuak elkartzea eta bateratzea geruza digitalaren bidezko parte-hartzearekin. (Ardatz publiko-soziala).
- c. Prozesu horietan sortzen diren datuak jasotzeko, lantzeko eta ikusarazteko moduetan eta haiek etikaz erabiltzean sakontzea, pribatutasun-eskubidearen eta "Big data sozial" horren ahalmenaren arteko oreka lortzeko. (Ardatz publiko-soziala).
- d. Parte-hartzean arrakala digitalak daude, baita arrakala presentzialak ere. Hausnartzen jarraitu behar dugu horiek gaindituko dituzten zubiak eraikitzeko. (Ardatz publiko-soziala).

2. Lan honi esker **hobeto jabetzen gara gure proiektuen zenbait alderdiri buruz** hitz egin behar dugula oraindik ere, eta horiek egiaztatzen eta ego-kitzen jarraitu behar dugula; esate baterako:

- a. Kalitatezko lan transbertsala egiteko gakoak. (Hiru ardatza).
- b. Partekatzen den jakintza horren ondotik, uneraren batean, ez dugu oso ondo jakiten zein izan daitekeen hurrengo pausoa. (Erakunde barneko ardatza eta Ardatz publiko-soziala).

- c. Topaketa horren ondorioz lortzen ditugun ideiak eta gailuak eraman behar ditugu gure taldeetara, aurrera egiten jarraitzeko. (Erakunde barneko ardatza).
- d. Proiektu horretan lidergoa nolakoa den hausnartzea. (Erakunde barneko ardatza eta Ardatz publiko-soziala).
- e. Are hobeto zehaztea proiektuaren balio-proposamena. (Erakunde barneko ardatza eta Ardatz publiko-soziala).
- f. Geneukana baino kronograma finkoagoa zehaztea, eta partekatzea. (Erakunde barneko ardatza).
- g. Horri kontrajarrita, uste dugu oraindik asko hobetu behar ditugula parte-hartze bidezko prozesuak, Administrazio Publikoaren eta herritarren arteko benetako topagune bihurtzeko. (Ardatz publiko-soziala).

3. Boluntariotzari, eta haren aitortzari eta formalizazioari buruzko gaiak.

Nola eraman daitezke proiektuak eremu batetik bestera, elkartasunezko ekintzak eragin ditzaten.

- a. Nola ikusaraz genitzake Administrazio Publikoan lan egiten duten teknikarien jakintza eta laguntzeko gogoia? Proiektuen bat sor genitzake zeharkako gaitasunak bildu, ikusarazi eta baliatzeko, Aragoiko Gobernuaren CVOL proiektuak langile publikoentzat proposatzen duena bezalakoa? (Erakunde barneko ardatza).
- b. Boluntarioek gure udalerrian egiten duten lana "formalizatzeko", ikusarazteko eta sendotzeko modu gehiago pentsatzea. Iruñategiren mapak eta CVOL proiektua ditugu inspirazio-iturri. (Erakunde barneko ardatza).

4. Mota honetako prozesuetan **botereak eta gobernantzak duten eraginaz hausnartzen** jarraitu behar dugu. Pentsatu rolen eta funtzioen banaketaz, proiektu horien mugez, eta esparru politikoaz, teknikoaz eta herritarraz.

- a. Batzuetan, itxuraz horizontalak diren agertokiak sortzen dituzten prozesuak abiarazten ditugu; haatik, botere-harremanak ukatzen baditugu ez dugu aurrera egiten. Botere-harreman horiek kudeatzeko mekanismo eta metodologietan sakontzen jarraitu behar dugu. (Erakunde barneko ardatza eta Ardatz publiko-soziala).

- b. Esparru politikoan dabiltzan zenbait beldurren ondorioz, azkenean, prozesuen kontrol-mekanismoak eratzen dira. Segurtasun ezaren, eta konfiantzan oinarrituta hura kudeatzeko moduaren arteko harreman hori argitu beharra dugu. (Erakunde barneko ardatza).
- c. Denbora eskaini behar diogu abiarazten ditugun proiektuen mugak argitzeari, eta argiagoak izan behar dugu, ahal dugun neurrian behinik behin. (Erakunde barneko ardatza eta Ardatz publiko-soziala).
- d. Nola ekarriko ditugu beste eragile batzuk proiektu horietara? (Ardatz publiko-soziala).



4.4 Probatzea

Laugarren gela positiboki nahi izateari dagokio, ekintzari, saiatzeari, probatzeari. Berrikuntzaren eta berriztatzearen gunea da; gakoa gauza txikiak egitea da, esperimentatzea eta aldaketa txikiak eragitea prototipoen bitartez, egitura handien zain egon barik, gure esku dagoena mugituz.

Lankidetzaren prozesuetan probatu beharreko lau alderdi jaso ditugu. Horietako bakoitzean lan-ardatz bati edo gehiagori dagozkion hainbat gako daude:

- 1. Ardatzak berez zeharkakoak izan daitezela lortzea.** Gure udalerriko sailak elkarrekin lotzeaz gain, kanpora irteten gara antzeko gaiak jorratzen dabil-tzan beste antolakunde batzuekin elkarlanean jarduteko. Hainbat antola-kunderen arteko sinergiak aprobetxatu gura ditugu.
 - a. Proiektu bakoitzean pentsatzea zein sail, antolakunde eta pertsona ekar genezake gure taldea handitzeko. (Hiru ardatza).
 - b. Antzeko gaiak lantzen dituzten antolakundeekin loturak sortzea; **Bolunta**, esaterako. Beste jakintza batzuk eskaintzen dizkiguten lankidetzaren proiektuak, Egonaldi honetan Josune Urrutia irudigilea erakusten ari dena adibidez. (Hiru ardatza).
 - c. Kanpoko eragileen mapa ebaluatzea. Gure harremanez pentsatzea, izan litezkeenez, laguntzen ari garen moduz. Manlleuko hiri hezitzailearen proiektuak gure arreta bereganatu zuen; han, "proba" egiten dute erakundeak, ikastetxeak eta Manlleuko Udala biltzen dituen eta beste herri-ekimen batzuei irekita dagoen lantaldearekin. (Ardatz publiko-soziala).
 - d. Proiektu mistoetarako eta parte-hartzezkoetarako talde motorrak sortzea. Parte-hartzezko foro bat sortzen saiatzea, egitasmoaren definitioan bertan. (Ardatz publiko-soziala).

2. Erakundearen beraren barruan parte-hartzea eta gardentasuna lotzea, udalerriarekin eta herritarren interesekin bat eginda. Berebiziko arreta ematea herritarrak egiten ari direnari eta gure antolakundera ekartzea, geruza digitala barne. Harremanetan jartzen laguntzen digu.

- a. Lehentasuna ematea herritarren proposamenak gauzatzen lagundu dezakeen lanari, proiektuak ikusarazteko eta ilusio handiagoa sortzeko. (Erakunde barneko ardatza eta Ardatz publiko-soziala).
- b. Ekintzarako deiak. Antolakundeek eta pertsonak proiektuetan aktiboak izateko zer behar duten entzun. (Erakunde barneko ardatza eta Ardatz publiko-soziala).
- c. Kudeaketa-rol bat baino gehiago probatu eta esperimentatu, parte-hartzeko aukera eta protagonismo handiagoa emanez zenbait adineko pertsonari, ardatza beraiek diren egitasmoetan. (Erakunde barneko ardatza eta Ardatz publiko-soziala).
- d. Oasis metodologia ikastea eta erabiltzea proiektu zehatzen batean, esate baterako "El canòdrom en el barri", Manlleu garatutako egitasmo bat. (Ardatz publiko-soziala).
- e. Buruz buruz lan egitea berriz, hurbiltasunez. (Ardatz publiko-soziala).
- f. Planifikatzea, egiteari ekiteko. (Ardatz publiko-soziala).
- g. Sekula ez da nahikoa komunikatzen! Prozesuaren berri ematea, gardena izatea. (Ardatz publiko-soziala).
- h. Garrantzitsua da "gune samurrak" martxan jartzea, elkarri aditzeko eta eza-gutzeko topaketak, egitura gutxiagorekin eta harremanei garrantzi handiagoa emanez. (Erakunde barneko ardatza eta Ardatz publiko-soziala).

3. Jakintzak aktibatzeko beste ekimen batzuekin saiatzea. Gaitasun bigunen biltegia eta curriculum gure udalerrietan. Berriro ere CVOL proiektuaren adibidea aipatu behar dugu, langile publikoei eta gure udalerrietako gazteei aplikatua, besteak beste.

- a. Gazteek eskuratutako gaitasunak egiaztatze modua aztertzea. (Ardatz publiko-soziala).
- b. CVOL proiektuaren logika barneratzea antolakundeetan eta, modu irekian, gure erkidegoetan. (Erakunde barneko ardatza eta Ardatz publiko-soziala).

- c. Etengabeko behaketa, barne hackeatze ikuspegiz, Administrazio Publikoan. Gure antolakundeetako prozesuek gaur egungo gizartearen erronkei aurre egiteko eskura ditugun aukerei adi egotea. (Erakunde barneko ardatza).

4. Probatze hau sormen-ariketa bat da, eta ideiak hibridatzetik sortzen diren proposamenena. Leku batean funtzionatu duena beste batean funtzionatu duenarekin batu nahi dugu gaur, gertatzen ari denari egokitzen zaizkion proposamenak egiten segitzeko.

- a. Geruza digitalari arreta handiagoa emanez eraikitzea. "Hibridazio digitala eta presentziala". Teknologiarekin saiakuntzak egitea adineko pertsonen mesederako, haien parte-hartzea errazte aldera. (Ardatz publiko-soziala).
- b. Gazteen parte-hartzea ardatz duten gunen eta prozesu berriak probatzea. (Erakunde barneko ardatza eta Ardatz publiko-soziala).
- c. Big data soziala: gizarteari entzuteko plataformak, datuak kudeatzea eta ikusaraztea. (Ardatz publiko-soziala).
- d. Proiektu presentzialak indartuko dituzten prozesu digitalak. Decidim/ Erabaki-k proposatzen duen eredua oinarri hartuta saiakuntzak egitea. (Ardatz publiko-soziala).
- e. Egitura horizontalagoak izateak aukera ematen du prozesuetan horizontaltasun handiagoa adierazteko. (Erakunde barneko ardatza eta Ardatz publiko-soziala).
- f. Gure auzoetan gertatzen denaren behaketa-ariketak egitea, parte-hartze handiagoaz eta banatuago. (Ardatz publiko-soziala).

4.5 Ardatzen eta arloen arteko topaketa

Ekintzarako ildoen laburpen bat erakutsiko dugu jarraian, lan-eredu bakoitzari dagokion arlokoak direla errespetatuz, eta Egonaldian egindako lanaren Hiru ardatza egituratzaileei lotutakoak.

Lau gelek bidea ematen dute proiektu hauek balioesteko beraien gaur egungo egoera jorratzean, eta, horrez gainera, aurrera egin dezaten eta berritu daitezten eman beharreko urratsetan sakontzeko. Bherria Egonaldiaren ernamuina izan ziren Eusko Jaurlaritzaren eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren hasierako galderak elkartuz sortu dira ardatzak.

Parte-hartzaileek, Administrazio Publikoko esparru teknikoan zein politikoan duten lekutik, eta jardun dezaketen eremua aukeratzen duten neurrian, irizpide egokiz bideratzen dituzte euren erronkak, erakunde barneko lanari eta lankidetza publiko-sozialari lotutako ardatzetara.



Lan-arlo bakoitzari arretaz begiratuta, hainbat ideia nabarmendu dezakegu:

- Ekintza-ildo gehien dituen arloak lehentasuna ematen dio zaintzea merezi duenari. Honezkero eginda dugun eta babestu eta ikusarazi nahi dugunaren zati handi bat Administrazio Publikoaren barruan egindako zehar-lanari lotuta dago, eta bereziki harremanak zaintzeari. Zaintza hori, gainera, prozesuei eurei ere eman behar zaie, behar duten arretaren arabera baliabide-kopurua eskainirik.
- Zentzua izan duten baino albo batera uztea edo, behintzat, energia gutxiago eskaintzea komeni den ekintzen eremuan bada leheneste-irizpide bat, Administrazio Publikoaren barne-alderdiei begiratzen diena. Ildo horretan, deigarria da kutsu emozionalagoa egotea mehatxua sumatzeari lotuta, baita ere babes-premia gairatu beharreko gaitzat hartzeari.
- Geruza digitala erabiltzeko modua, proiektuen diseinuan sakontzekoa, edo boluntariotza eta gobernantza formalizatzeko funtsezko galderak dira, eta beharra sumatzen dugu haiei buruz ikertzen eta argipena bilatzen jarraitzeko. Hausnarketa-eremu horiei dagokienez, berriro ere, Administrazio Publikoko eskumenekin eta Egonaldi honetara deitutako pertsonekin zerikusia zuten alderdiei begiratzen zaie batik bat.
- Azkenik, deigarria da lankidetzaren publiko-sozialari lotutako erronka-kopurua; ekintza berritzaileen atalean jaso genituen horiek. Ikusten denez, proiektu horien eraldaketarekin lotura estuena duen hobekuntza-eremuan hainbat ekintza-ildo daude, Administrazio Publikoko eta herritarren arteko eragileei dagozkienak. Berriz ere, ikus dezakegu zailtasun eta ahalmen guztien topagune hibrido hori funtsezkoa dela gizarte-berrikuntzarako

	01 - ERAKUNDE BARNEKO ARDATZA	03 - ARDATZ PUBLIKO-SOZIALA	02 - HERRITARREN ARDATZA
ZAINTZEA - 1.A			
ZAINTZEA - 1.B			
ZAINTZEA - 1.C			
ZAINTZEA - 1.D			
ZAINTZEA - 2.A			
ZAINTZEA - 2.B			
ZAINTZEA - 2.C			
ZAINTZEA - 2.D			
ZAINTZEA - 3.A			
ZAINTZEA - 3.B			
ZAINTZEA - 3.C			
ZAINTZEA - 3.D			
ZAINTZEA - 3.E			
ZAINTZEA - 4.A			
ZAINTZEA - 4.B			
ZAINTZEA - 4.C			
ZAINTZEA - 4.D			
ZAINTZEA - 5.A			
ZAINTZEA - 5.B			
ZAINTZEA - 6.A			
ZAINTZEA - 6.B			
UZTEA - 1.A			
UZTEA - 1.B			
UZTEA - 1.C			
UZTEA - 1.D			
UZTEA - 2.A			
UZTEA - 2.B			
UZTEA - 2.C			
UZTEA - 3.A			
UZTEA - 3.B			
UZTEA - 3.C			
UZTEA - 3.D			
UZTEA - 4			
ARGITZEA - 1.A			
ARGITZEA - 1.B			
ARGITZEA - 1.C			
ARGITZEA - 1.D			
ARGITZEA - 2.A			
ARGITZEA - 2.B			
ARGITZEA - 2.C			
ARGITZEA - 2.D			
ARGITZEA - 2.E			
ARGITZEA - 2.F			
ARGITZEA - 2.G			
ARGITZEA - 3.A			
ARGITZEA - 3.B			
ARGITZEA - 4.A			
ARGITZEA - 4.B			
ARGITZEA - 4.C			
ARGITZEA - 4.D			
PROBATZEA - 1.A			
PROBATZEA - 1.B			
PROBATZEA - 1.C			
PROBATZEA - 1.D			
PROBATZEA - 2.A			
PROBATZEA - 2.B			
PROBATZEA - 2.C			
PROBATZEA - 2.D			
PROBATZEA - 2.E			
PROBATZEA - 2.F			
PROBATZEA - 2.G			
PROBATZEA - 2.H			
PROBATZEA - 3.A			
PROBATZEA - 3.B			
PROBATZEA - 3.C			
PROBATZEA - 4.A			
PROBATZEA - 4.B			
PROBATZEA - 4.C			
PROBATZEA - 4.D			
PROBATZEA - 4.E			
PROBATZEA - 4.F			

5

BA... OTAN
PE... METAN
PENTSA... EA
AR...
BAINO...

ADIBIDEZ
GA 2TERIA
KIROLAK ETA
EMAKUMEAK

DANA DAGO
LOTUTA

KRITIKO
ORO
GA

eranskinak

ASECOPÍA

5.1 Blogeko artikulak

Bherriren webguneko blogean argitaratutako edukiak jaso ditugu:

1. [Hemen da berriro bherria proposamen berriarekin.](#)
2. ["Prozesu demokratikoak eratzeko diseinaturiko plataformak gobernantza demokratikoa izan behar du".](#)
3. ["Borondatezko ekintza ezagutzera eman nahi dugu datuen potentzial izugarriaren bitartez".](#)
4. ["Iruñategi iruñako gizarte eta erakunde ehunaren zerbitzura dagoen proiektua da".](#)
5. ["Bherria egonaldia, lankidetza publiko-sozialeko proiektuak indartzeko topaketa".](#)
6. [Lankidetza publiko-soziala pandemia garaian.](#)

HEMEN DA BERRIRO BHERRIA PROPOSAMEN BERRIAREKIN

2020-01-23

Bherriak, Herri Administrazioaren eta herritarren artean lankidetzarako modu berriak aztertzeraz eta sustatzera bideratutako ekimenak, Bherria Egonaldia abian jarri du; hots, Euskadin herritarrak aktibatze prozesuak indartzeko proposamen berria.

Azken bi edizioetan, 250 lagunengatik parte-hartzeari esker, lankidetzarako publiko sozialerako formula berriak landu ditugu Bherriaren **Agoren** bitartez, eta, era berean, espazio publikoen kudeaketa komunitarioarako erronkari aurre egin diogu **BherriLab**-en bidez (herritarren laborategia).

Orain, formatu berriarekin gatz. Bherria Egonaldia elkar topatu eta elkarrekin lan egiteko gunea da, udal-administrazioek gidatzen dituzten edo parte hartzen duten proiektuak sakontzeko eta hobetzeko sortua. Proiektu horien helburua pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da, herritarren ekimenekin batera lan eginez, eta parte-hartze sozialaren eta boluntariotzaren baloreei lotuta.



Bizikidetza-espazioa udalerrian proiektu bat abian duten Herri Administrazioako teknikariei zuzenduta dago, eta martxoaren 12an eta 13an burutuko da Bilbon. Bizikidetza oinarri izango duen formatu trinko horrek kontzentrazioa eranstean dio jarduerari, eta topaketaren harreman-potentzia handitzen du; bi alderdi horiek funtsezkoak dira proposamen honen helburu espezifikoetarako.

Lanerako Hiru ardatza

Egonaldiaren asmoa da bizikidetzarako gune bat izatea. Egun eta erdiko jardunaldian garatuko diren ekintza formalen eta informalen bitartez, parte-hartzaileen proiektu zehatzak sakonduko dira, lanerako esparru egituratuan aztertze, egiaztatze edo oztopoak bilatzeko. Aholkularitza eta esperientziak trukatzeko aukera eskainiko da, betiere begirada zabal, aske, kritiko, eraikitzaile eta sortzailetik erreparatuta.

Topaketa lanerako Hiru ardatzaaren inguruan eratu da: erakundeen barneko lankidetzak, parte-hartze prozesuak eta boluntarioen sustapena indartzeko; erakunde sozialen eta herritarren ekimenen arteko lankidetzak, dinamika horiek bultzatzeko Udalek jarritako laguntza-estrategiei erreparatuta; eta Herri Administrazioaren eta herritarren arteko lankidetzak, erronka sozial berriei erantzun eraginkorrak ematearren.

iBherria abian da! [Jaitsi dossierra](#) Egonaldiari buruzko informazio gehiago eskuratzeko. Aurrez izena emateko epea otsailaren 21eko 14:00etan amaitzen da.

Aurrera egiteko unea da. Abian jartzea erabakitzen baduzu...

[ZATOZ BHERRIA EGONALDIRA!](#)

"PROZESU DEMOKRATIKOAK ERATZEKO DISEINATURIKO PLATAFORMAK GOBERNANTZA DEMOKRATIKOA IZAN BEHAR DU"

2020-02-07



Hain zuzen ere, horrela berretsi du Carolina Romerok, eta Bilbora etortzeko irrikan dagoela esan du, Bherria Egonaldian parte hartzeko. Carolina Localret Kontsortzioko Ezagutza eta Teknologia Arloko teknikaria da eta Decidim plataformaren luzapenaren koordinatzailea. Feministatzat du bere burua, eta teknopolitika eta giza eskubideak interesatzen zaizkio.

Carolina, zer da Decidim proiektua?

Decidim parte hartzeko plataforma digitala da, edozein motako prozesu demokratikoa eratu eta beste erakunde eta elkarte batzuek erraz erabili ahal izateko oro har garatua. Horren diseinuak eta malgutasunak, software askea izateak, arkitektura modularrak eta garapen-eredu irekiak izugarri hedatzea bultzatu dute, eta, beraz, lau urte ondoren, tokiko eta eskualdeko 80 gobernu eta 40 erakunde sozial baino gehiagok dagoeneko plataforma horren aldeko apustua egin dute. Software askeko proiektua izanik, edonork ikus dezake kodea, baita kopiatu, aldatu eta hedatu ere, betiere lizentzia bera izaten badu (AGPLv3). Horrez gain, proiektuaren gobernantza demokratikorako mekanismoak bilatzen eta diseinatzen dituzten pertsonen, toki administrazioen eta erakundeen komunitatea da Decidim. Bartzelonako hiriraino hedatu da, eta, egun, nazioarteko proiektua ere bada.

Decidim.barcelona Bartzelonako hiriak parte hartzeko plataforma digitala da. 2016ko otsailaren 1ean hasi zen funtzionatzen, eta, egun, datu hauek ditu: 32.000 parte-hartzailetik gora erregistratuta, 13.000 proposamen, 1.300 bilera presentzial, 190.000 babes jasota eta herritarren 9.000 proposamen baino gehiago onartuta.

Hasiera Udal Jarduera Planaren (UJP) prozesuarekin batera gertatu zen, esfera digitalean parte-hartze gehieneko prozesu estrategikoetako batekin. Gaur egun, plataformak UJPen bigarren edizioa jorratzen du, lehen aurrekontu parte-hartzaileak aldi

berean egitearekin batera: parte hartzeko hogeita hemezortzi prozesu, parte hartzeko hamabost bat udal-organo eta herritarren dozena bat ekimen.

Proiektua garatzeko nolakoa izan behar luke edo nolakoa izan da beste udal-arloekin egindako lankidetzaz?

Decidim parte hartzeko azpiegitura moduan definitzen da, era askotara erabil baitzekete erakunde eta instituzio ezberdinek. Bartzelonako L'Ajuntament herritarrei zerbitzu ugari eskaintzen dizkien erakunde konplexua da, modu independentean edo sarean lan egin dezaketen ekipamenduak ditu, antolamendu sektoriala eta lurralde-antolamendua eta erakunde autonomo eta enpresa publiko ugari ere bai. Era horretan, Decidim instantzia ezberdinak sor ditzake —herritarrek parte hartzeko mekanismo propioetatik haratago— udal-arlo ezberdinak demokratizatzeke.

Hasieratik esku hartu da Udal Informatika Institutuarekin (IMI), plataforma garatzeko kontratuak diseinatu eta lizitatzeke, eta honako hau da Erakundearen software askeko proiekturik garrantzitsua.

Halaber, koordinazio-espazioak ezarri dira parte hartzeko prozesuak sustatzen dituzten udal-sail guztiekin (Hirigintza, Demokrazia Aktiboa edo Ekintza Komunitarioa, besteak beste), eta segimendu-batzordeak biltzen dira hamabost egunez behin, jarduneko jarduerak partekatu eta hurrengoak planifikatzearren.

Azkenik, parte-hartzea Bartzelonako Ajuntament-ean lan egiten duten pertsona guztiengana irekitzeko helburuarekin, duela gutxi Barne Comunicació-ko Sailarekin lan egin da, Desenvolupament i Atenció al Personal, barne Decidim bat abian jartzeko. Horri esker, hasiera batean, ideien postontziaren proiektua egin ahal izango da, eta etorkizunean parte hartzeko eta eztabaidatzeko bestelako prozesuak eta espazioak irekiko dira.

Zer-nolako baliabideak edo babesak eskaintzen dizkie proiektuak lehendik dauden herritarren ekimenei edo gizarte-ekimenei?

Bi lankidetzaz-hitzarmen sinatu dira 15 erakunderekin herritar aktibo eta antolatuentzat demokratikoki parte hartzeko tresna gisa Decidim hedatzeko. Lehen akordioa zehaztu da Recerca, Desenvolupament i Innovació-ko zuzendaritzaren eta Acció Comunitària-ko zuzendaritzaren arteko lanarekin. Bigarren hitzarmena zehazteko, berriz, Serveis d'Economia Cooperativa, Social i Solidària i Consum-eko zuzendaritzarekin koordinazio-lanak egin dira.

Akordioen helburua da hiriko irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta elkartearen artean plataforma ezartzea erraztea, haien barneko parte-hartzea eta demokrazia sustatze aldera.

Zergatik eskatzen du proiektuak herritarrekin lan egitea? Zer-nolako estrategiak erabili dituzue lankidetzan hori bideratzeko?

Plataformaren kontratu sozialaren printzipio demokratikoak bermatzeko helburuarekin, hasieratik komunitate ireki bat bultzatu nahi izan genuen, Decidim-en garapen-prozesu osoa eta diseinu funtzionala egiten laguntzeko. Aukera horren premisa honako hau da: prozesu demokratikoak eratzeko diseinaturiko plataformak gobernantza demokratikoa izan behar duela. Erabateko erronka: komunitate bat eraikitzea Bartzelonako Udalak bultzatutako proiektu batetik abiatuta eta horren izaera publiko-komuna onartuta, softwarea askea eta kode irekikoa izatean.

2016ko azaroan, lehen jardunaldiak antolatu ziren, eta, modu horretan, Decidim komunitatea, Metadecidim deiturikoa, eratzeko unea abian jarri zen.

Metadecidim-en kanal nagusia meta.decidim.org da, Decidim-en instantzia bat, komunitatearen parte-hartzea eratzeko balio duena prozesuen esparru zabalean. Aldi berean, esperimentaziorako gune moduan balio du, funtzionaltasun berriak aztertzeko, akatsak detektatzeko eta hobetzeko proposamenak jasotzeko lekua baita.

Metadecidim parte-hartze demokratikoaren prototipoa da: herritarrei boterea eman nahi die erremintaz jabetzeko, garatzen laguntzeko eta horren eraikuntzan parte hartzeko. Gaur egun, Metadecidim komunitateak ordezkariak sozial zabala du; hau da, 975 parte-hartzaile mundu osoko herritar, garatzaile eta ikertzaile eta enpresa eta erakunde artean.

"BORONDATEZKO EKINTZA EZAGUTZERA EMAN NAHI DUGU DATUEN POTENTZIAL IZUGARRIAREN BITARTEZ"

2020-02-18

Raul Olivanek badaki zertaz ari den, eta, gainera, grinarekin egiten du. Gertaerek ere hitzekin erakusten duen konfiantza bermatzen dute. Aragoiko Gobernuako Gobernu Irekiaren eta Berrikuntza Sozialaren Zuzendaritza Nagusitik, CVOL atera du; hau da, boluntariotzaren inpaktua sustatzen, aitortzen, egiaztatzen eta neurtzen duen plataforma digitala, zeharkako gaitasunak erabilita eta 2030eko Agendako Garapen Iraunkorreko Helburuetan eraginez. Raulen hitz labur batzuek nahikoa dira Bherria Egonaldian egoitearen esentzia transmititzeko, bestela ere interes handia piztu du-eta.



Raúl, zer da CVOL gaitasunak egiaztatzeko plataforma?

Egungo testuinguruan, funtsezkoa da ditugun gaitasun pertsonalak eta profesio-nalak erakustea. Ingurune ezberdinetan ikasten duzuna gaitasun bilakatzen da, eta pertsona batek bere jakinduria erakusteko modua da. Ildo horretan, Boluntariotza-ren Gaitasunen araberako Portafolioa sortzen da, CVOL, Aragoi erakunde sozialen programetan parte hartzen duten boluntarioen gaitasunak egiaztatzeko sistema. Hiru helburu argi ditu: boluntarioen ekintza aitortzea eta lan, hezkuntza eta arlo pertsona-lerako balio duen esperientzia moduan egiaztatzea; boluntarioekin lan egiten duten erakundeek ekintza indartzea eta ezagutzera ematea, gizarte-kohesiorako egiten

duen ekarpen erabakigarriarengatik; eta Aragoiko boluntariotzaren inpaktua eta GIHeiko ekarpena (Garapen Iraunkorreko Helburuak) eta 2030 Agenda neurtzea.

Portafolioa 2018an sortu zen beta fasean, eta, egun, 245 erakunderen boluntariotzako 247 programa daude. "CVOL Enpresak Kluba" izeneko proiektua hasi berri dugu, portafolio hori erakundeetako giza baliabideen departamentuek kontuan hartu eta onartu dezaten eta boluntariotza korporatiboa ezagutzera ematearren.

Nolako izan behar du eta izan da beste departamentuekin jorratutako lankidetzak?

Aragoiko Gobernuaren ekimena denez, herritarren parte-hartzean erabateko esku-mena dugu Komunitate Autonomoaren luze-zabaleran. Zehazki, lankidetzak elkarrekin da boluntariotzako erakundeekin eta boluntarioekin; Zaragozako Unibertsitatearen azoketara joateaz gain probintziako hiru hiriburutan, aholkularitzak eta prestakuntza-tailerrak egiten ari gara boluntariotzako erakundeekin CVOL ezagutzera emateko eta Huescan, Zaragozan eta Teruelen plataforman programak erregistratzen eta sortzen laguntzeko.

Zer-nolako baliabideak edo laguntzak ematen dizkie proiektuak lehendik dauden herritarren ekimenei edo ekimen sozialei?

CVOL plataformaren bitartez, boluntariotzako erakundeek eta boluntarioek egiten duten lan sozial ikusezin hori guztia aintzatesten da. Aragoi, hain zuzen ere, loturak sortu eta gizarte zuzenagoa eta solidarioagoa eraikitzen dute, pertsona guztiak zoriontsuagoak izateko.

Halaber, gizartearen hobekuntzarako denbora eta jakinduria eskaintzen duten adin guztietako milaka pertsonaren ekintza solidarioa sustatzeko, ikusarazteko, konektatzeko eta egiaztatze sortutako sare sozial berritzailea da. Portafolioaren bitartez, boluntariotzaren parte hartutako programetan garatu ahal izan dituen gaitasunak erakusten ditu pertsona boluntarioak.

Erakunde bakoitzak boluntariotzako programa guztiak sortu eta editatzen ditu, modu horretan ikusgarritasuna emateko; aldi berean, boluntarioek garatutako gaitasunak edo boluntariotza-ekintzan hartutakoak egiaztatzea lortzen dute.

Proiektuari dagokionez, zergatik egin behar du elkarlana herritarrekin? Zer-nolako estrategiak erabili dituzue lankidetzak hori bideratzeko?

Une honetan, hazten eta hedatzen ari gara; beraz, Aragoiko boluntariotza-elkarteak batzen dituzten koordinadora, plataforma eta federazioekin etengabe harremanetan eta elkarlanean aritu gara, CVOL plataforma hedatze aldera. Modu horretan, aurkezpen-ekitaldiak, azoketan standak, prestakuntza-tailerrak, aholkularitza teknikoak erakundeekin egoitzetan, sare sozialak, e.a. landu ditugu.

Lehentasuna programak argitaratzea izan da, hemendik aurrera era esponentzialean gora egin dezan CVOLen bitartez egiaztatutako pertsonen kopuruak.

"IRUÑATEGI IRUÑAKO GIZARTE ETA ERAKUNDE EHUNAREN ZERBITZURA DAGOEN PROIEKTUA DA"

2020-02-24

Ekimen honen berri emateko Axel Moreno baino hoberik inor ez. Zerbaitegatik da Iruñeko Udalean Herritarren Parte Hartzearen zuzendari gisa zegoela proiektu hau bultzatu zuen pertsona. Aholkularia, prestatzailea eta ikerlaria da, politika publikoetan, toki-garapenean, gobernantzan eta herritarren parte-hartzean espezializatua. Axelek parte hartzearen, hezkuntzaren eta kulturaren arloko proiektuetan laguntza eskaintzen die administrazio publikoei, enpresei eta sektore sozialeko erakundeei. Gizarte-hezitzailea,

Gestalt terapeuta eta Gizarte Politiketan eta Ekintza Komunitarioan aditua da, eta antolakuntza eta taldeko prozesuak ere errazten ditu. Axel Bherria Egonaldira iritsi da hiriaz eta jendeaz goatzeko eta taldean ikasi nahi duten pertsonekin batera esperimintatzeko gogoarekin.



Axel, zer da Iruñategi proiektua?

Iruñategi Iruñako Udaleko Herritarren Parte Hartze eta Jabekuntza Sozialaren Arloak bultzatutako proiektua da, hiriko gobernantza-sareak aztertzeke, ezagutzera emateko eta indartzeko sortua.

Proiektua hiru analisi-lerroren bitartez garatzen da: lehena lurraldeko baliabideen sarea detektatzean eta ezagutzean oinarritzen da; horretarako, ehun sozialaren eta instituzionalaren eta gizarte-ekonomiaren eta ekonomia solidarioaren mapaketa egiten du. Iruñategik guztira 1.960 baliabideren datuak biltzen ditu, eta horiek online mapa interaktiboaren bidez kontsulta daitezke, baita auzo bakoitzeko 13 planotan ere, infor-

mazio-paneletan nahiz liburuxketan; bigarren analisi-lerroan, tokiko premiei erantzuna emateko, gobernantza-sareak indartuko dituzten politika publikoak garatzeko premiak eta erronkak identifikatu nahi dira; eta, azkenik, hirugarren lerroan, hiriko ehun sozialaren bilakaera historikoa ikertuko da.

Nolakoa izan behar du edo izan da proiektua garatzeko Udaleko beste Arloekiko lankidetzak?

Iruñategi hiriko ehun sozialaren eta instituzionalaren eskura dagoen proiektua da. Baliagarritasun handiko tresna da Iruñeko hurbileko teknikarientzat eta baliabideentzat; beraz, Udal barruko lankidetzak eragin sozial handiagoa zuten hiru udal-arloren arteko koordinazioaren bitartez garatu zen: Herriarren Parte-hartzea eta Jabekuntza Soziala, Gizarte Ekintza eta Garapen Komunitarioa eta Kultura, Hizkuntza Politika, Hezkuntza eta Kirola.

Zer-nolako baliabideak edo laguntzak eskaintzen dizkie proiektuak lehendik dauuden herritarren ekimenei edo ekimen sozialei?

Gobernantza-sareen mapaketa eta egiaztatze prozesuak garatuta, hiriko ehun sozialaren eta instituzionalaren inguruko informazioari eta kontsultari buruzko tresna eguneratuak eskuratzen ditu lurraldeak. Iruñategi baliabide instituzionalen, sozialen eta Gizarte Ekonomiaren eta Ekonomia Solidarioaren sarea ezagutzera eman eta azpimarratu egiten du auzoetan, Iruñari buruzko ikuspegi osoagoa sortzen laguntzearekin batera.

Aldi berean, analisi-prozesuak garatzeari esker, hirian ehun sozialaren garapenean eta parte-hartzean eragina duten faktoreak ezagutu ahal izan ditugu. Halaber, tokiko premiei erantzuna emateko, gobernantza-sareak indartuko dituzten politika publikoak garatzeko erronkak ere identifikatzeko aukera eman digu.

Zergatik eskatzen du proiektuak herritarrekiko lankidetzak? Zer-nolako estrategiak erabili dituzue lankidetzak hori bideratzeko?

Gure lurraldeen konplexutasunaren gainean jarduteko, publikoa denaren inguruko ikuskera berria garatu behar da, esfera instituzionalera mugatuta ez geratzearren. Lurraldearen errealitatea osatzen dugun aktore mordoak errekonozitu behar da eta elkarrekiko mendekotasuna ere bai, ehun soziala, instituzionala eta ekonomikoa tartean sartu eta inplikatzeko dituzten jarduerak garatze aldera, herritarrekin elkarlana eginaz.

Iruñategi ez da ekimen isolatua, baizik eta estrategia zabalago batean aurkitzen da, hirian jabekuntza soziala eta ekintza komunitarioa Udaletik bultzatzeko. Iruñategiko parte-hartzea espazio eta lankidetzak publiko-sozialeko prozesu askoren bitartez gauzatu da: Herriarren Parte Hartzeko Foroa (herritarrek parte hartzeko organo sektoriala), Kolaboratorioak (baterako sorkuntzako laborategiak), Parte Hartzeko Demokraziaren Toki Behatokia (Parte hartzeko esperientzien analisia eta segimendua egiteko Behatokia), Lankidetzako Espazioa Zentroa (Herriarren Parte Hartzeko Zentroa), Auzoetako Foroa (herritarrek parte hartzeko lurralde-organok) eta hirian batera kudeatutako espazio ezberdinak (zentro eta baratza komunitarioak edo Emakumeen Etxea, besteak beste).

BHERRIA EGONALDIA, LANKIDETZA PUBLIKO-SOZIALEKO PROIEKTUAK INDARTZEKO TOPAKETA

2020-03-30

#Bherriaren edizio berria? Eta egonaldi formatuarekin, gainera? Zenbat albiste on tuit batean! Horrela jaso zen urtarrilaren 23an Bherriaren proposamen berria. Handik aste batzuetara, martxoaren 12an, Bherria Egonaldia iritsi da.

Goizeko zortziak dira ZWAPen Terminalean, 'Estampaciones y Calderería'ren pabiloi zaharrean; orain balio anitzeko espazioa da, leku esanguratsua, eta gu bertara hurbildu gara Zorrotzaurre auzoa suspertzeko inplikatzaren diren pertsonen kezka bidez sortu baita. Hemen 30 pertsona baino gehiago bildu gara elkarrekin egiteko egun oso bat eta erdiko denboraldian, formatu trinkoan, Herri Administrazioaren eta herritarren arteko lankidetzaren proiektuak sakontzeko eta hobetzeko, parte-hartze soziala eta boluntarioria bezalako balioak aintzat hartuta. Jakin badakigu datozen bi egunetan zalantza-egoera biziko dugula, koronabirusaren inguruko lehen mezuak iristen hasi direlako. Ez dakigu noraino aurrera egiteko aukera izango dugun. Abian jarri gara Bherria Egonaldia iritsi izanaren ilusioarekin, prestatzen eta lan egiten gogor aritu eta gero.

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako zuzendari Marian Olabarrietak ongietorria egin eta eskerrak eman dizkie Euskadiko udal-teknikariei nahiz Bartzelonatik, Iruñatik, Manlleutik Zaragozatik edo Sevillatik etorri diren pertsonari, gonbidapena onartu eta haien proiektuak guri aurkezteagatik. "Bherria apustu berritzailea da harreman publiko-sozialeko modu berriak sustatzeko. Deialdi honi emandako erantzunak argi erakusten du lankidetzaren harremanak egiteko beharra dagoela administrazioan bertan, herritarren artean eta administrazioaren eta herritarren artean. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako Departamentuan ziur gaude erronka garrantzitsuei erantzun ahal izango diegula soilik herritarrekin batera baldin bagoaz", azaldu du zuzendariak.

Bherria Egonaldia hasi da!

Talde bideratzaileak dagozkion azalpenak eman ondoren, lehen saioari hasiera eman diogu. Egonaldi honen printzipioek elkarrekin eraikitzeko, zehatzera joateko, proaktibitate irekitzeko eta esperientzia propioan dugun ezagutzatik ekarpenak egiteko eran kokatzera gonbidatzen dute. Modu horretan, lanean hasi gara. Espazioan barneko mugimenduak elkar ezagutzen laguntzen du: Nondik gatoz? Zein arlotan edo departamentutan egiten dugu lan? Nola bizi ditugu proiektuak? Zama edo inspirazio-iturri dira? Helburu argi bat dugu: antzeko proiektuetatik konektatzea eta ikastea erabilgarritasuna eta praktikotasuna bilatuaz.

Terminaleko hormak 18 panel handirekin jantzi ditugu, bat proiektu bakoitzeko; ekin-tzen ibilbidea eta ikaskuntzak jasotzeko eta ondorioak jartzeko espazioa dituzte. Parte hartzen duten proiektuen banako eta taldeko autodiagnostikoa egin dugu; ondoren, arketipoei buruzko lana egin eta gure proiektuetan inplikaturiko agenteen arteko harremanaz gogoeta egin dugu, aldaketa garrantzitsua ekar dezakeen palanka-puntu bilatzeko —inpaktu handiagoa energia gutxiagorekin—. Nortzuk dira? Zer-nolako

jarrera dute? Zer-nolako esaldiak entzuten dizkiezu proiektuan parte hartzen duten edo hartuko duten pertsoneri? Nolako tonua erabiltzen dute? Nolakoa da haien gogoaldatea? Zerbait garrantzitsua dute zuri kontatzeko? Gure proiektuarekiko eta bultzatzen den testuinguruarekiko lehen hurbilketa egin eta gero, beste proiektu batzuk ezagutzeko unea da. Alderatzeko gogo handia dugu, beste pertsonen esperientzia aprobetxatu eta zure zalantzak eta ikasitakoak partekatzeko gogoia.

Ondoren, kafea, fruta eta bizkotxo batzuk hartzeko atseden txiki bat egin eta haien izaera, tamaina, garapena edo inpaktua medio beste distira bat dutela diruditen proiektuak ezagutzeko unea iritsi da. Proiektu horiek baliagarriak dira, geure buruari begiratzeko ispiluak bezala. Carolina Romero hasi da Decidim aurkezten, Xabier Barandianek bideo honetan azaltzen zuen plataforma, herritarrek parte hartzekoa. Jarraian, Raúl Olivánen txanda izan da: boluntariotzari buruzko ikuspegi berria eta teknologiek CVOL bidez hori ezagutzera emateko eta errekonozitzeko izan dezaketen lekua azaldu ditu. Azkenik, Axel Morenok Iruñategi proiektura hurbildu gaitu; hau da, Iruñeko 1.960 baliabideren datuak biltzen dituen ekimena. Online mapa interaktiboaren eta auzo bakoitzeko 13 planotan kontsulta daitezke horiek.



Aurkezpenetan galderak sortzen joan direnez, hiru mahaitan banatu gara Caroli-narekin, Raulekin eta Axelekin hitz egiteko; aldi berean, garrantzitsua den eta gure proiektuak aberastu ditzakeen guztia idazten joan gara nabigazio-egunkarian. Adimen kolektiboak duen indarra aprobetxatu nahi dugu pertsonen arteko aholkularitza-talde txikiak antolatuta, galderak trukatu, zalantzak partekatu eta proiektu bakoitzari buruzko ekarpenak jasotzeko; dinamika hori ahalik eta gehien aprobetxatzen da. Esan bezala, pertsona horien artean indarra eta energia handia dagoela sumatzen da.

Amaitu dugu saioa panel guztien inguruan; pertsona bakoitzak esperimentatu duen aurrerapenen bat azpimurtzen du. Ariketa ona da. Jarraian, osoko bilkura bat egin-go dugu gertatutakoari buruzko gure iritzia emanez, poztasun sentsazioa nahiko partekatua izan zen. Horrela iritsi gara 18.30etara, eta une horretan lehen egunari amaiera eman diogu. Gure proiektuei buruzko ideiak eta iritzia entzun, landu eta trukatu ditugu.

Egonaldi honetan, harremanak estutzeaz gain, sareak ehundu nahi ditugu lankidetzatza-logikak jorratzen jarraitu nahi duten pertsona geldiezinaren artean. Hori dela-eta, Sarean-era joan gara afaltzera, San Frantzisko auzoan dagoen auzoko espaziora, herritar talde baten (Plaza Espazioa Kultur Elkartea), ostalaritza-ustategiaren eta Toki Administrazioaren (Bilbo Ekintza) arteko lankidetzaren adibidea den lekura. Bilera ordu askotakoa izan bazitekeen ere, goiz erretiratu gara biharamunean Terminalera goiz itzuli nahi dugu-eta.

Ostirala da, martxoak 13. Lanari heldu diogu Egonaldi honetatik ateratako hura identifikatuaz. Koronabirusari buruzko albiste berriak iritsi dira, eta, arretaz jokatzeko, saioa bertan behera uztea erabaki dugu. Hala ere, laster argitaratuko ditugun txostenetan osorik ikusi ahal izango diren ikaskuntza batzuk jaso ahal izan genituen, laburpen-bideo batekin, baliabideekin eta Bherria Egoitzaren ebaluazioarekin batera. Ebaluazioa, 1etik 6rako eskalan, 5,36 puntura iritsi da. Hona hemen aurrerapen bat:

- Espazioak eta denbora zaintzea distantzia hartu eta prozesuei eta proiektuei buruzko hausnarketa egiteko.
- Taldeak, itunak eta zeharkako proiektuetan inplikaturiko pertsonak zaintzea.
- Zenbait egitura, ezarritako logikak,... aldatzeko beldurrik ez izatea.
- Mugekin borrokatzeari uztea eta energia alda dezakegun hartara bideratzea.
- Hizkuntza teknokrata ez erabiltzea eta beste pertsona batzuek hurbiltzeko aukera ematen duten zubiak eraikitzea.
- Geruza digitalari arreta gehiago eskainita eraikitzea. Geruza digitalaren erabilera, hibridazioa eta prozesu presentzialekiko bizikidetzatza aztertzen jarraitzea.
- Parte hartzeko prozesuak hobetzea. Herri Administrazioaren eta herritarren arteko benetako bilgune bilakatu daitezela.

- Boluntariotzari, horren errekonozimenduari eta formalizaziori buruzko kontuak argitzea. Proiektuak arlo batetik bestera nola eraman, ekintza solidarioko palankak izan daitezen.
- Zeharkako ardatzak probatzea. Proiektu bakoitzean zein beste departamenturekin, erakunderekin eta pertsonarekin gure taldea zabaltzeko pentsatzea.
- Parte-hartzea eta gardentasuna konektatzea erakundearen beraren barnean, udalariarekin eta herritarren interesekin bat etorriz

Honaino iritsi gara kronika honetan. Lanaldi baliagarriak praktikan jartzeko ikaskuntzak sortzen dituzte, eta, ondorioz, Bherria Egonaldian ikasitakoak energiaz bete zaitzatela eta zuen proiektua hobetzen lagun dezala espero dugu. Ideia eta esperientzia hauek pertsona gehiagorengana iristen jarraitzea nahi genuke, guztion artean gizarte zuzenagoa eta solidarioagoa eraikitzen jarraitzeko eta administrazioaren eta herritar aktiboen arteko lankidetzaz jorratuaz.

Bitartean, zaintzea egokitzen da.

LANKIDETZA PUBLIKO-SOZIALA PANDEMIA GARAIAN

2020-04-09



Elkartasun eta elkarrekiko babesaren erantzun ugari ari dira azaleratzen aste hauetan, herritarren ekimenetik eta lankidetzak publiko-sozialetik, larrialdi koronabirikoari erantzuteko. Hasiera-hasieratik, Bherriaren interes, hausnarketa eta jarduera gune izan zen hori, eta orain denbora errealean bizitzen eta esperimentatzen ari gara modu aplikatuan.

Bherriaren lehen edizioa itxi genuenean, 2017ko abendu aldera, Bherria birus berri bat bezala metaforarekin jolas eginaz egin genuen, eta parte-hartzaile bakoitzak transmititu behar zuen inguruneke testuinguruan. Kutsatzeko gonbidapena luzatu genuen! Gaur, gonbidapen hori politikoki okerra izango litzateke pandemia izaten ari den efektu kaltegarrien aurrean. Orain, beste gonbidapen bat egin nahi dugu, hausnartzen jarraitzeko gonbidapena, biralari buruz, jarduteko estrategia bezala (azkar eta era banatuan zabaltea beste erakundeekin bitartez) nahiz egoera honetatik atera ditzakegun beste ikaskuntzei buruz. Berrogeialdia aprobeitza dezakegu geure buruaz pentsatzeko, maila indibidualean eta kolektiboan, gizarte gisa, entzietatik indartuta ateratzeko, aldaketarako prest izateko, solidarioagoak eta kontzienteagoak, artikulatuagoak eta konprometitua- goak izateko sartu ginenean baino. Beraz, txerto medikoa iristen den bitartean, proposa- tzen dugu gertatzen ari diren immunizazio sozio-komunitarioko ekintzei erreparatzea eta horien gakoetako batzuk zeintzuk diren adieraztea.

ZENBAIT IKASKUNTZA ETA GALDERA ASKO

Jarraian, gure ingurunean gertatzen ari denetik eratorritako ohar batzuk partekatuko ditugu. Ohar horiek zerikusia dute askotariko agenteek ekimen hibridoetan duten lankidetzarekin eta harreman horiek aurrera egiteko eman beharreko baldintzekin; publikoa denak bere rola birpentsatzeko eta berriz definitzeko behararekin, agertoki berri hone- tan indartuta ateratzeko; dikotomoa fisiko-digitalaren hausturarekin; presente egotearen garrantziarekin, egoeraren eskura jartzearekin; emergentea artatzearekin eta ekintzatik aldatzearekin; antolatzeke modu banatuei eta erantzunkiderei arreta eskaintzearekin; edota komuna dena eraikitzearekin logia, protokolo eta estandar aske eta irekien bitar- tez.

Asmoa ez da ondorio edo baieztapen itxiak izatea, pentsatzeko eta eztabaidatzeko ideiak baizik, zeren, beharbada, COVID ondoren izango dugun gizartean lantzen jarrai- tzeke lankidetzak publiko-sozialeko andui onak izan daitezke.

EKIMEN MUTANTEAK

- Izaera gero eta hibridoagoa duten ekimenak, arlo publikoaren, herritarraren, sozialaren eta enpresarialaren esparruen artean, komun aldera. Konfiantzako, aitortzako eta elkarrekikotasuneko harremanak sortzeko gaitasunean oinarritzen diren ekimenak, orekak eginez, jokoa eta protagonismoak banatuz, eta tipologien, interesen, rolen, erantzukizunen edo aukeren aniztasuna uztartuz. Nola konbinatu eta balioetsi esparru bakoitzetik eta une bakoitzean eman daitekeen onena? Zer-nolako baldintzak bete behar dira anfibia, transware eta mutante izaerako ekimenak ugaritzen dituzten ekosistema sozialak garatzeko? Nola egin dezakegu ekimen horiek, mugitzen dituen helburu komuna lortzeko eraginkorrak izateaz gain, ohituta ez gauden harreman, konpromiso eta prozesu mota horietarako esperimenezko eta ikaskuntza partekatuko benetako prozesuak ahalbidetu ditzaten?
- Eszenatoki horretan, publikoa dena birpentsatu egin behar da indartuta ateratzeko, komun aldera zabalduaz eta funtzioaren eta zerbitzu publikoaren ideia indarrez berreskuratuaz. Erakundeek beren lekua bete behar dute, interes orokorra zaintzeaz gain (osasun-sistemeekin argi eta garbi ikusten ari garen moduan), baina baita ere ikasi behar dute espazioak uzten, bideratzen, errazten, kode burokratikoak irekitzen, laguntzen, legitimatzen, baliabideak jartzen eta subsidiariorotasun erantzunkide handiagoa bilatzen herritar antolatutik (kanporatze pribatizatzailea gaindituaz). Indartze hori, irekitzearekin batera, estrategia onena izan daiteke errekurtsuak, gaitasunak, eskumenak, askotariko begiradak, osagarriak eta interdependienteak eskatzen dituzten gero eta konplexutasun handiagoko eszenatokiak jorratzeko. Nola uztartu eta atzeraelikatu sortzen ari den herritarren ekintza eta erakundeek ekintza bermatzaileenarekin eta planifikatuenarekin kokatuta dagoena? Nola lortu instituzionalaren eta herritarraren arteko harremanean kooptazio, burokratizazio eta instituzionalizazio prozesurik ez gertatzea? Erakundeei nola eman malgutasun gehiago, prozeduren behar adinako zehaztasunari eutsita, emergentea dena, esperimentala, konbentzionala ez dena jorratu ahal izateko alarma edo salbuespeneko egoeretatik haratago (gainera, kultura, protokolo eta ohiturak ez izateagatik, erantzun eraginkorrak ematea ere lortzen ez duenean)?
- Fisikoa eta digitala ez dira banatutako bi mundu, errealitate berean konbina daitezkeen bi geruza baizik. Konfinamenduaren garai honetan, Internetek eta IKTek aukera ematen digute gure komunitate naturalekin harremanetan egoteko, gure egunerokoaren alderdi berria sarera eramanez. Sare sozialen potentziala aprobetxatu dugu konektatuta egoteko; telelana kasu askotan ez dela hain konplikatuakin jakin dugu; sarean garatutako ekimen mordoa partekatu eta elkarrekin sortu dugu; elkarri laguntzeko sistemak eratu ditugu, presentziala osatuaz eta sofistikatuaz; eta ohartu gara digitala garrantzitsua dela bizimoduari eusteko elementu gisa. Aldi berean, konturatu gara arrakala digitalaren garrantziaz edota operadore teknologiko pribatu handiez dugun mendekotasunaz. Nola hobetu dezakegu ingurune fisiko eta digitalen arteko interrelazioa eta transferentzia? Zenbat denbora gehiago utziko dugu azpiegitura digitalak bezain garrantzitsua den zerbaite interes partikularren esku? Nola arindu Internetera sartzeak edo ez sartzeak eta gero eta digitalizatuagoa dagoen mundu batean herritartasuna egikaritzea ahalbidetuko duen gaikuntza teknologikora sartzeak eragindako desberdintasuna?

- Bizi garen une arraro hauetan, presente egotearen aukeren garrantzia eta ugaritasuna agerian geratzen ari da, eta hori fisiko presentzialetik haratago doa. Horrek zerikusia du konpromisoa hartzearekin; gorputza jartzearekin (birtuala bada ere); igurtzi eta gurutzearekin (orain distantziei eutsita egin arren); une bakoitzean egitea beharrezkoa den hura egitearekin, egoeren zerbitzura jarrita; egoerak bizi izatearekin eta horiek gu maila pertsonalean eta kolektiboan gurutzearekin. Denbora presentzialaren kalitateetik haratago doan zerbait da, eta gaudenean egote hori kalitatezkoa izatea eskatzen du. Nola askatu denbora eta baliabideak presente egon ahal izateko? Zein espaziok, ariketak edo egoerak aukera hori erraztu dezakete?

EMERGENTEA DENAREN ETA BANATUA DENAREN INDARRA

- Emergentetik jarduten hastea, denbora errealean gertatzen denari erreparatuta, egokitze eta kokatzeko moduan. Txinparta, hasierako bultzada, mobilizatzeko ZERTARAKO batetik dator, enpatizatzeko zerbaitetik, benetako premia batekin, larrialdi batekin, eskaera zehatz batekin konektatzeko zerbaitetik. Partekatutako helburu horretan, pertsonak beren burua islatuta ikusi behar dute, interpelatuta sentitu behar dute, haien parte-hartzeak garrantzia duela nabaritu behar dute. Koronabirusarekin bizi dugun bezalako arrisku handiko egoeretan, gizarte bezala ezagutzen ez dugunari aurre egitea eskatzen digularik, gure muga logistiko nahiz mentalak gaineztuz, beldurra sortzen da, ahulak sentitzen gara, eta, oro har, "salba bedi ahal duena" esalditik haratago, komunitate-sentimendua sortzen da, nonbaitekoa izatearena, elkartasunarena eta elkar babesteko sentimendua. Lankidetzaren beharrezkoa da bizirik irauteko gutxienez emozio-mailan. Egoera horietan, berehala, jarduteko ekimenak bilatzen ditugu, antolatzen ikasten dugu, akatsak onartzen, garrantzitsua den hartan oinarritzen. Geure buruaren onena ateratzen dugu. Baina, nola aurkitu salbuespenezko, larrialdiko eta/edo muturreko egoera horietatik haratago mobilizatu gaituzten txinparta horiek?
- Txinpartak su hartu dezan, beharrezkoa izan daitezke mobilizatzeko, antolatzeko eta/edo komunikatzeko gaitasuna duten pertsonak; eta lehendik dauden konfiantzako sareak, horietan babesteko, nolabaiteko kultura dutenak eta denentzat egiteko moduak lantzen dituztenak, lehen ekintza edo prototipo azkarra egin ahal izatearren. Nola lortu pertsona edo erakunde batzuen lidergoek pisu eta ikusgarritasun gehiegi ez hartzea eta lidergoa banatuta eta modu erantzunkidean mantentzea?
- Emergentea denaren ondoren, egindakoa, igotakoa, finkatzeko eta aurreikusitakoa gainditzeko unea etor daiteke (hain desiragarria espektatibak gainditzeko dakarrelako, baina baita arriskutsua ere arrakastaz hiltzea suposatzen dezakeelako). Gerrillaren lehen logikak egituraketa eta plangintza handiagorantz eboluzionatzen du (koordinazioa, lantaldeak, baliabideen kudeaketa, mugarriak markatzea,...). Nola igaro emergentea denetik fase egonkorrago batera denboran balizko segida bat bilatuaz? Komeni da hori egitea edo hobe da emergentea denaren bertutea eta egokitasuna onartzen jakitea egoeraren arabera zerbait bezala? Nola lortu erakunde handiagok batek inplikaturako pertsonen dinamismoa, moldagarritasuna, autonomia eta proaktibitatea galtzea ez ekartzea, baizik eta hori guztia indartzea?

- Ekimen emergente asko antolatzen dira banatuta, tokiko sareei eta/edo sare globalei esker, baliabideak batuaz eta partekatuaz, energiak federatuaz eta modu horizontal eta erantzunkidean lan eginaz. Banatutako egitura horiek ondo funtziona dezaten, arau gutxi baina argiak izan behar dituzte, dena kontrolatu nahiari aurre egiten utzi behar zaio, entzute aktiboa praktikatu eta proposamenen ekarpena egin behar da, eta gauza bat bera ere gainerakoen gainetik ez jartzea lortu behar da, gauza bakoitzari bere espazioa izaten utziaz. Egitura horiek aukera ematen dute pertsona edo erakunde bakoitzak parte hartzeko eta inplikazio eta konpromiso modu eta maila ezberdinetan ekarpenak egiteko, haien gaitasunaren, disponibilitatearen edo nahiaren arabera. Dedikazio zatikatu horiek guztiak aprobetxatzen eta gozatzen jakin behar da, eta hori ez da erraza, ohituta ez gaudelako. Baina lortzen badugu, horrek ekimenak askoz azkarrago garatzea eragiten du, mundu guztia garrantzitsua den komunitate baten parte izatearen sentimendua indartuz. Nola batu inplikazio eta konpromisoaren maila, modu eta erritmo ezberdinak? Beharrezkoak al dira koordinaziorako figura indartsuak taldearen kohesioari eta norabideari eusten laguntzeko edo hobe da sareko autonomia gehituko duten protokoloak eta egiturak garatzearen aldeko apustua egitea? Zein kasu edo unetan gehiago komeni daitezke egitura zentralizatuak, deszentralizatuak edo banatuak?

OHIKOA, LIBREA ETA IREKIA DENA

- Ekimen prokomunak, adimen kolektiboaren eta gaitasunen batuketaren emaitza. Filosofia ez ezik, nola, egiteko moduak, erremintak eta errazten duten protokoloak ere partekatzen dira. Halaber, egiletasuna partekatzen da, aldi berean denonak diren ekimen horiek inorenak ez direlako.
- Ezagutza librearen eta kode irekiaren printzipioetan oinarritutako ekimenak (diseinua, garapena, ezarpena eta dokumentazioa kontuan hartuta); ekimen horiek errazago batzeko eta era banatuan lan egiteko aukera ematen dute, horiek hobetzeko, eskalatzeko eta transferitzeko. Eta, horrela, balioa eta inpaktua biderkatzen dira.
- Nola lortu era honetako ekimenetan norbanakoaren interesak modu legitimoan jokoan jartzea, denon ondasuna eraikitzearen eta mantentzearen menpe? Nola saihestu logotipoen borroka, nola desaktibatu markek pertsonen gainean duten hegemonia, eta nola gaingitu hau norena da eta/edo nola lortu beste batzuek beren ekimena abian jarri nahi ez izatea eta dagoeneko martxan dagoen ireki batekin bat egitea? Nola sartu laneko logikak eta estandar irekiak modu natural eta arinean?

HAUSNARKETA ELIKATZEKO ZENBAIT ERREFERENTZIA

Hausnarketa eta galdera hauek erreferentzia askok babesten dituzte, horiek sakontzen, praktikotik zehatzean kokatzen eta hariari tiraka jarraitzen laguntzen baitute. Hona hemen testu hau idazterakoan aintzat hartutako batzuk:

- **Birpentsatzea berrabiatu baino lehen.** Egun hauetan ekarpen ugari iritsi dira, filosofia eta gizarte-zientzietatik, gertatzen ari dena ulertzen laguntzeko, ez isolatutako gertaera bat bezala, eredu sozio-politiko-ekonomiko-kultural nagusiarekin konektatutako zerbait bezala baizik. Ekarpene horietako bat Bruno Latourrek egin du, eta "Eragozpen-keinuak imajinatzen krisiaren aurreko produkzioara itzultzearen aurka" testuan, aipatzen du, konfinamendua amaitzean, ez dugula presarik izan behar ahalik eta azkarren "normaltasunera" itzultzeko, erritmo erotu hori berreskuratzeko, kaltegarria dela dakigun produkzio-sistema hori berraktibatzea itzultzeko. Testuaren amaieran, norberarentzako galdetegi bat proposatzen du, koronabirusaren ondorengo balizko sistema hori nolakoa izatea gustatuko litzaiguen pentsatzen joateko. Auto-galdetegi hori kontuan hartuta, Amalio Reyk "Pandemiaren ondoren ezberdin bilakatzeko bi ariketa" proposatu ditu, sistema ekonomiko-produktiboaren inguruko gogoera egitera bideratuta: Paralisia eta gero zein jarduera ez lirateke itzuli behar, zergatik eta zer proposatu horietan aritzen ziren pertsonen alternatiba gisa? Zer jarduera itzuli behar lirateke indar gehiagorekin eta hobetuta? Zer-nolako jarduera berriak jarri behar lirateke abian eta nola egin bideragarriak eta iraunkorrak izateko? Gehitu beste batzuk gure praktikei buruzko hausnarketa egiteko maila pertsonalean. Zein ohitura eta praktika pertsonal/profesional aldatu edo utzi behar zenituzke eta zergatik? Zein berri sartu beharko lirateke eta nola egin benetan eta era etengabearen egiteko?
- **Ahaleginak federatzea, ekimenak gehitzea.** Frena la curva bezalako plataformak lankidetzaren publiko-sozialetik sortu dira, ia alarma-egoerarekin batera, ahalegin solidarioak federatuaz osasun-krisiaren eta konfinamenduaren egoera jorratzeko, lehendabizi ekimenen foroaren bitartez, gero mapa geolokalizatu baten bidez, eta beranduago herritarren laborategi banatuaren bidez, dagoeneko hamar herrialde baino gehiagotan erreplikatu dena. Deialdi birtualak egin dira ekimenak garatzeko, hackathon erakoak; esate baterako, #VenceAlVirus edo formatu zabalagoak dituztenak, tartean, #Covid19Challenge, irtenbideak lankidetzaren moduan diseinatzeko UX ikuspegitik. Halaber, badira beste adibide batzuk; hala nola, Pienso luego actúo, aurrez ere bazeudenak, eta egoera biriko honetara egokitu direnak.
- **Libreak eta irekiak ez dute batzen, biderkatu baizik.** Librearen eta irekiaren logikatik, gertatzen ari den guztiaren pista jarraitzeko, ondorengoan sar gaitzeko: "Koronabirusa: baliabideak eta ezagutza irekia pandemiaren erantzunaren aurrean elkarlanean aritzeko"; bertan, honako hauen inguruko adibideak jasotzen dira: mapak eta datuak, zientzia, informazio eta berrikuntza publikoaren plataformak edo lankidetzako lan digitalerako erremintak. Halaber, oso interesgarriak dira Diseinua eta diaphora podcast-ak diseinu irekiaren aldetik garatzen diren ekimenei eskaintzen dizkien kapitulu bereziak. Eta adibide horiei guztiei beste asko gehitu dakizkieke; esate baterako, Enreda kooperatibaren Twitter harian agertutakoak, jendearen zerbitzura dagoen teknologiaren inguruan edo Agustín Lossoren beste honetan berrikuntza sozial eta makers proiektuen gainean azaldutakoak.

- **Lokalaren eta globalaren artean, fisikoaren eta digitalaren artean.** Makina bat aukera hurbiltasunean oinarritutakotik digitalaren potentzial guztia ateratzen duenaraino. Sareko ekimen globalak; adibidez, Coronavirus Makers, pantailak-maskarak eta arnasmakailuak ekoiztera bideratuak. Euskadiri begiratuta, tartean ditugu Tecnalia bezalako korporazio handiak, Walter Pack bezalako erakundeak, Tunipanean bezalako makerrak edo Hirikilabs edo Espacio Open bezalako herritarren laborategiak eta fablab-ak. Horrez gain, badira Elkartasun Sareak bezalako ekimen ultralokalak; bertan biltzen dira Bilboko auzoei laguntzeko sareak, eta ondo baino hobetu erakusten ditu herritarrak antolatzekeko modu berriak, oinarri komunitarioko auzotarren mugimenduen tradizioarekin konektatuak, birusa baino ia azkarrago erreproduzitu direnak estatu osoko udalerrietan. Halaber, erdi bidean dauden ekimenak aipa daitezke; hala nola, ner ekosistemaren inguruan abian jartzen ahalegintzen ari direnak, Harremanen Estilo Berriak antolatzeke eta produzitzeko modu berrien gainean gakoak nola eman ditzakeen pentsatuaz, betiere pertsonak erdian kokatuta. Ekimen horiek, dei erraz batzuen bitartez, aktibo mantentzen gaituzte fisikoki nahiz intelektualki, irudimena gizaki egiten gaituen energia berriztagarria dela erakutsiaz, beti ez baitiogu nahikoa balio ematen, baina inteligentzia kolektibotik ateratzen denean altxor txiki handiak ekoizten ditu; besteak beste, Errondariak birusaren aurka, bertan, Gaztelako folklorea eta 2.0 teknologiak, tradizioa eta berrikuntza, batu egiten dira beldurra borrokatzeke abestuz; #HAGAMOS CASA, gure etxearen solairuaren marrazkia partekatzeke proposamena egiten diguna, guztion artean denon etxea eraikitzeke; edo COR ON COLLABORATION, COVID-19aren inguruko podcast kolaboratiboa, Telegram-eko kanal batean jasotako audioetatik editatua.
- **Bidetik ikastea, egindakoari balioa ematea.** Amaitzeko, "10 gako lankidetzak publiko-sozialerako eta herritartasun aktiboa eta boluntariora sustatzeko" berreskuratuko dugu. Bherriaren lehen edizioaren emaitza zehatzetariko bat da; bertan, lanean jarraitu beharreko erronka asko planteatzen ziren.

Uharteak gara artxipelago bat osatuz; P2P sare ia amaigabe bat osatzen duten pertsonez osatutako artxipelago bat, egunero lanera irteten jarraitzen dutenek osatzen dutena, oinarritzko zerbitzuei eusteko lehen leerroan jarriaz; etxean geratzen direnek osatzen dutena kurba geldiarazten lagunduz; gaixotu direnek edo bakarrik daudenek osatzen dutena; okerre gero etorriko dela jada pentsatzen dutenek osatzen dutena; egoera arraro honetan aldaketa eraldatzailerako aukera ikusten dutenek osatzen dutena; umorea ez galtzeko memeak sortzen jarraitzen dutenek osatzen dutena; txalo egitera edo entzunaraztera arratsaldero balkoira irteten direnek osatzen dutena; elkarri laguntzeko era guztietako ekimenetarako konpromisoa hartzen dutenek osatzen dutena,...

Pertsona horiek guztiek txalo zaparrada bat merezi dute!

5.2 Ebaluazio-datuak

BHERRIA EGONALDIA EBALUAZIO TXOSTENA

Banatutako ebaluaketa inprimaketatik 18 erantzun jaso ditugu. .

1etik 6rako batez besteko ebaluazioa

5,36

Helburuak

Zure zalantzak eta kezkak partekatzeko konfiantzazko espazio bat sortu dela uste al duzu? (0 eta 6 bitartean).

5,61

Antzeko zalantzak eta esperientziak dituzten pertsonak ezagutu dituzu? (0 eta 6 bitartean).

5,17

Zure ulermena zabaltzeko aukera izan duzu beste ikuspuntu osagarriekin? (0 eta 6 bitartean).

5,33

Zure proiekturako Ikasketa praktikoren bat eramango duzu? (0 eta 6 bitartean).

5,17

Azalduko diguzu?

Aprovechamiento de sinergias con otras organizaciones.

Besten parte hartzea erraztu proiektuotan diseinuaren kanpo ikuspegi bat ikusteko. Talde motorrak eratu eta uztaren dinamika.

He reflexionado un montón. He desoído la idea inicial para reformular y simplificar.

Trabajar la capa digital del proyecto. Poner en valor el valor público del proyecto y de la ciudadanía.

Consolido alguna ideas: facilitación regulación del poder, digital y profesional. Incluyo otros: nuevas relaciones y organizaciones de la administración. Muchos contactos para poner más ideas en juego.

Reconocimiento de competencias CVOL.

Formas de enfocar y herramientas.

Aire fresco, metamirada,...

Trabajo intenso en circunstancias raras, con provecho e inspirador.

Foros participativos. Transparencia. Métodos digitales, papel del voluntariado.

Calificación de competencias. Espacios/foros informales de diálogo.
Trabajo en red, importancia de las personas.

No tanto aprendizaje práctico, como ideas para contar.

¿Crees que la residencia puede servir para visibilizar-
generar un contexto a favor de este tipo de proyectos?
(De 0 a 6).

5,72

Bestelako oharrak

Es un regalo, un presente para estar presente, el único instante que existe
para entregarnos al proyecto.

Si, vistas las trabas que han tenido otras iniciativas, y las virtudes,
habrá que visualizarlo. Por lo que habrá que sembrar contextos que las
visibilicen y las sociabilicen.

La intensidad de la presencia te hace ganar tiempo para mejorar los
proyectos.

Es un modelo muy bueno para trabajar, poner en común, agitar ideas,
generar propuestas, conspirar junto a otras.

Se han dado muchas conversaciones y se pone el trabajo
colaborativo en valor.

Sobre todo, me interesa esta oportunidad de crear redes.

Genera ilusión, fuerza y es una sobredosis de expresiones pedagógicas.

Azpiegitura eta antolakuntza

Tokiari egokia deritzozu: argiztapena, tenperatura...?
(0 eta 6 bitartean).

4,17

Egonaldiaren proposamena gustatu zaizu, bizikidetzan
funtsatuta? (0 eta 6 bitartean).

5,72

Bestelako oharrak

Se ha producido una auténtica inmersión en el proyecto propio
enriquecido por el de los demás proyectos.

Asko zaindu dugu aspektu bat dela argi dago. Giro oso atsegina sortu
duzue eta horrek dena erraztu du. Tenperatura izan da hobetzeko
alderdia.

Metodología: Fenomenal, buen rollo, buena dinámica, buena exposición,
bueno, todo...

Espacio, solo por el frío, lo demás ideal.

El espacio es espectacular, los cambios de temperatura, también.

Para repetir.

Ayuda a centrar y estar concentrados.

El formato es perfecto. Pena de no haber podido acabar el proyecto, pero se entiende

Ha hecho frío, pero me ha gustado el espacio fácil aparcamiento, espacio especial.

Muy original y amable la metodología.

Ha sido un oasis intenso de reflexiones y ,en mi caso, también de aprendizaje. Una apertura a propuestas innovadoras y desconocidas. Gracias.

Metodologia eta bideraketa

Zer iritzi duzu erabilitako metodologiaren gainean?
(0 eta 6 bitartean).

5,89

Eta bideraketa dagokionean? (0 eta 6 bitartean).

5,50

Bestelako oharrak

La metodología y herramientas utilizadas ha permitido emerger las máximas capacidades al servicio del proyecto.

Oso ondo egon da gidatua lana. Lan egiteko denbora egonda.
Zatikatu izatea asko gustatu zait. Denok hitz egin eta parte hartzea lortu duzue. Zorionak.

No podíais haber encontrado un espacio mejor, zorionak.

Sinceramente, espectacular, humanamente y profesionalmente..

Me quedo con las ganas de cerrar el proceso planificado, que la crisis del virus no nos ha dejado terminar.

Sois unos cracks.

Han ayudado a encontrar lo que se quería hacer desde los proyectos.

Equipazo. Muy buena dinamización metodológica.

Solo tengo palabras de agradecimiento, por tener la oportunidad de participar en Bherria.

Zerbait azpiarratzeko beharra banu, zera izango litzateke: esperientziak ezagutzeaz gain gure proiektuaren lan egiteko denbora edukitzea.

Nos llevamos dinámicas para adaptar a nuestro equipo.

Ágil y manteniendo la dosis de tensión adecuada.

BHERRIAREN AURRENEKO EDIZIOEN EBALUAKETA

Banatutako ebaluaketa inprimaketatik 7 erantzun jaso ditugu.

Harreman edo lankidetzarik duzu Bherrian ezagutu zenituen pertsonekin?
(1 eta 6 bitartean). 1 Ez eta 6 harreman handia

2,57

Noizbait jo duzu Bherrian argitaratutako materialetara?
Dekalogoa, biltegia, bideoak, artikulak,...
(1 eta 6 bitartean). 1 Inoiz ez eta 6 sarritan

4,28

Zein material? Zertarako erabili dituzu?

Artículos del blog referidos innovación y mejora de la participación ciudadana.

Gogoratzeko gakoak erreskatatzeko.

Recientemente hemos tenido en cuenta a algunas de las personas para la conformación de un comité de expertos/as. Asimismo, la red me ayudó a la hora de llevar a cabo una investigación universitaria sobre participación ciudadana y, en algún caso, hemos intercambiado conocimientos o recomendaciones para resolver problemas concretos.

	BAI	EZ
Ohartu zara zure proiekturen batean Bherriako ikaskuntza praktikoak sartu izanaz?	5	2

Erantzun hori argitzen duen adibide bat partekatu dezakezu?

Cuidar la creatividad sin miedo a equivocarme, establecer aprovechamiento de sinergias con otras entidades afines, explorar proyectos inspiradores: CVOL.

Oraindik ez dut aukerarik izan.

A la hora de desatar nudos con compañeros/as de otras áreas ajenas a la comunicación y la participación, hay materiales y aprendizajes que me han servido (subrayar, por ejemplo, la importancia de comunicar, de colaborar, de incorporar nuevas herramientas, etc.).

Zertarako uste duzu baliogarria izaten ari den Bherria?

Tejer redes cooperativas entre proyectos que tienen en común la motivación con la que impulsan y la mejora de servicios.

Para compartir, cooperar y mejorar para crear nueva red de mejoras de proyectos, lo vivo como un inicio de relación.

Ausartezko, jabetzeko, partekatzeke.

Para que aflore el debate sobre la necesidad de modernizar nuestras administraciones públicas; para reflexionar sobre nuevas formas de hacer; para que el personal técnico del ámbito local refuerce su legitimidad valiéndose de una iniciativa impulsada por el Gobierno vasco; para compartir experiencias; para aprender; para sentirse menos solo/a desempeñando unas funciones que muchas veces no se entienden bien....

www.bherria.eus

